# *Donostiako* garapen sozioekonomikoari buruzko txostena

## **2024ko** barometroa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

**donostia**sustapena
fomento**sansebastián**

# Behatu ulertzeko, behatu eraldatzeko.

# 2024ko barometroa

Donostiako garapen sozioekonomikoari buruzko txostena



# Aurkibidea


## 00
**Hitzaurrea**
o. 06

## 01
**Kohesioa eta enplegua**
o. 10

01.1
Biztanleria
**o. 11**

01.2
Hezkuntza eta formakuntza
**o. 20**

01.3
Enplegua
**o. 22**


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostiasustapena
fomentosansebastián

# *Donostiako* garapen sozioekonomikoari buruzko txostena


## 02
**Zerbitzu hiria**
o. 32

02.1
Udal BPGa
**o. 33**

02.2
Donostiako enpresa-sarea
**o. 34**

02.3
Udal sare ekonomikoaren sektore azterketa
**o. 37**

02.4
Hiri-ekonomia
**o. 40**

02.5
Ezagutza-zerbitzu intentsiboen hiria (EZI)
**o. 44**

02.6
Jarduera ekintzailea
**o. 47**

## 03
**Zientzia eta berrikuntzaren hiria**
o. 48

03.1
I+G
**o. 48**

03.2
Enplegu teknologikoa
**o. 53**

03.3
Teknologiaren eta I+Gren ezagutza sarea
**o. 58**

03.4
Talentua bultzatzea hirian
**o. 61**

03.5
Ekitaldi eta jarduera zientifiko-teknologikoak
**o. 63**

## 04
**Lurralde begirada**
o. 64

04.1
Auzoen profil demografikoa eta sozioekonomikoa
**o. 64**

04.2
Jarduera ekonomikoen banaketa auzoen eta hiri espazioen arabera
**o. 72**

# 00 Hitzaurrea

Aurten ere, Donostia Sustapenetik Hiri Barometroaren beste edizio bat aurkezten dugu, 2024koa. Testuinguru global konplexu batek markatutako urtea izan da aurtengoa; eta ziurgabetasun handia, tentsio geopolitiko iraunkorrak eta mundu mailako erronka klimatikoak ditu ezaugarri. Aldi berean, aurrerapen teknologiko garrantzitsuen lekuko izan gara, adimen artifizial sortzailearen, konputazio kuantikoaren eta energia berriztagarrien garapenak bultzatuta.

Testuinguru aztoratu horretan, Donostiako —eta bertako 189.865 egoiliarren— errealitatea ona izan da, barometro honetan jasotako adierazle nagusiek erakusten dutenez. Munduko dinamiketatik isolatu gabe, oraingo eta etorkizuneko erronken aurrean sendotasuna eta egokitzeko gaitasuna ditu hiriak.

Demografiaren ikuspegitik, Gipuzkoako hiriburuak biztanleria hazkunde neurritsu baina iraunkorra izan du, batez ere atzerritar jatorriko biztanleek bultzatua. Kolektibo hori 30.000 pertsona ingurukoa da 2024an, hau da, herritarren % 16 inguru, eta formalizatutako kontratazio berrien % 21 haienak izan dira.

Aldi berean, 65 urtetik gorako pertsonak —silver belaunaldia— biztanleriaren % 26 baino gehiago dira. Gure gizartearen bizi kalitatea eta zahartzearen erronkak islatzen ditu horrek. Agertoki horretan, atzerritar jatorriko biztanleria berriak hiriaren saldo begetatibo negatiboa arindu du. Jaiotzen kopuruak gora egin du pixkanaka, eta, horri esker, biztanleria piramidea orekatuagoa eta iraunkorragoa izan daiteke etorkizunean.

Lan esparruan, 2024an zifra historikoetara iritsi da Donostia. Urteko batezbestekoa 90.900 pertsona aktibo eta 84.900 landunekoa izan da. bendua amaitzean, 6.479 langabe zeuden hirian Lanbideren araberal. Paraleloki, biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko ikestaren arabera, langabezia tasa % 6,3koa zen. Azken hamarkadetako mailarik baxuenetakoa da, eta bat dator Europako estandarrekin.

Zerbitzuen sektorera (enpleguaren % 91,4) oso bideratuta dagoen tokiko produkzio-ehunak ere bilakaera positiboa izan du. 2024an, hiriko BPG nominala % 6,6 hazi da (% 3,0 BPG errealari dagokionez, hau da, inflazioaren eragina kenduta), eta, hala, hazkunde horrek Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoak gainditu ditu. Enplegua, aldiz, % 2,7 hazi da.

Zerbitzuen sektorean “bi arima” bizi dira elkarrekin: lehena, historikoagoa eta hiritarragoa, kaleko txikizkako merkataritzan (8.666 enplegu) eta sektore turistiko-gastronomikoan (9.812 enplegu) zentratua, guztira 18.500 enplegu inguru dituena; eta bigarrena, berrikuntzari eta ezagutza-zerbitzu intentsiboei (EZI) lotua, 2024an jada 35.556 enplegura iristen dena hirian.

2024. urtea bereziki positiboa izan da tokiko zientziarentzat eta I+Grentzat. Laugarren aldiz, Donostia zientzia eta berrikuntzaren hiri izendatu dute, punta-puntako enpresen (bioteknologia, AA, konputazio kuantikoa eta antzeko esparruetakoak), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari lotutako hiriko 30 zentroen eta tokiko eta lurraldeko instituzio publikoen babes aktiboaren estrategia partekatuaren aitorpen gisa.

I+Gko inbertsioak bi digituko urte arteko hazkundea izan du (+% 12,3), tokiko BPGaren % 3,7ko bolumenera iritsi da, eta hiria Europako eskualde aurreratuenekin aldera daitekeen mailan kokatu du.

2024ko Hiri Barometroa, aurreko edizioetan bezala, lau gai-multzotan egituratuko da:

- **1 _ Kohesioa eta enplegua**, hiriko demografia, prestakuntza eta lan adierazle nagusiak aurkezten ditu.
- **2 _ Zerbitzu hiria,** produkzio errealitatea eta sektore errealitatea aztertzen ditu.
- **3 _ Zientzia eta berrikuntzaren hiria**, I+Gko inbertsioaren eta enpleguaren zifra nagusiak erakusten ditu.
- **4 _ Lurralde begirada mikroa**, hiriko auzo eta zonalde ezberdinen arabera bereizitako adierazleen aukeraketa biltzen du azken bloke horrek

Aurkeztutako adierazle guztiek udal, EAE, estatu eta Europa mailako iturri estatistiko ofizialak dituzte oinarri.

Donostia Sustapenetik eskerrak eman nahi dizkiegu dokumentu hau egiteko behar den informazioa eman diguten pertsona, erakunde eta instituzio guztiei, kudeaketa publikorako, enpresa plangintzarako eta herritar guztien ezagutzarako tresna zehatza, eguneratua eta erabilgarria izan dadin.



## 2024ko aginte-taula: Donostiako adierazle sozioekonomiko nagusiak. 2024

| Eremua | Adierazlea | 2024 | | | 2023-2024 bilakaera |
|---|---|---|---|---|---|
| **1 Kohesioa eta enplegua** | Biztanleria (kop.) | **189.865** | 99.850 | 90.015 | +% 0,4 |
| | Atzerritar biztanleak (%) | **10,6** | 10,0 | 11,3 | +% 4,4 |
| | Zahartze-tasa (%)[1] | **26,2** | 29,1 | 22,9 | +0,5 e.p. |
| | Enplegatutako pertsonak (urteko batezbestekoa, kop.)[2] | **84.900** | 42.900 | 42.000 | +% 2,9 |
| | Langabezia tasa (%) | **% 6,3[3]** | % 6,6[4] | % 5,7[5] | -0,2 e.p. |
| | Jarduera tasa (%)[6] | **% 57,3** | 54,7% | % 60,3 | +0,8 e.p. |
| | Enplegu tasa (%)[7] | **% 76,5** | % 75,7 | % 77,3 | +2,6 e.p. |
| **2 Zerbitzu hiria** | BPG nominala (milioi €) | **9.357 M€** | | | +% 6,6 |
| | Biztanleko BPGa | **51.159 €** | | | +% 6,4 |
| | Enpresak (kop.) / Establezimenduak (kop.) | **15.384**<br>**17.930** | | | -% 1,4<br>-% 0,9 |
| | Jarduera ekintzailearen tasa (JET) | **% 7,9** | | | +0,9 e.p. |
| | Ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enplegua (%, guztizkoaren gainean) | **% 35,1%** | | | +0,2 e.p. |
| | Txikizkako merkataritza eta aisialdi turistiko eta gastronomikoaren sektoreetako enplegua (%, guztizkoaren gainean) | **% 18,2** | | | +0,4 e.p. |
| **3 Zientzia eta berrikuntzaren hiria** | I+Gko inbertsioa (mila eurotan)[8] | **365.375 m €** | | | +% 12,3 |
| | I+Gko enplegua[9] | **6.794** | 3.164 | 3.630 | +% 8,0 |
| | Emakumeen enpleguaren pisua I+Gn (%)[10] | **% 46,6** | z.g. | z.g. | -0,6 e.p. |
| | Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleriaren % | **% 27,4** | % 29,2 | % 25,5 | +0,4 e.p. |

[1]65 urtetik gorakoak, guztizkoaren gainean.
[2]Biztanleria landuna. Urteko batezbestekoa 2024. *Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat.*
[3]*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat. Urteko batezbestekoa 2024.*
[4]*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat. 2024ko IV. hiruhilekoa.*
[5]*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat. 2024ko IV. hiruhilekoa.*
[6]Jarduera-tasa = (∑ aktiboak / ∑ 16 urteko eta gehiagoko biztanleria) x100.
[7]Enplegu-tasa = (∑ landunak / ∑ 16-64 urteko biztanleak) x100.
[8]2023. urteko datuak.
[9]2023. urteko datuak.
[10]2023. urteko datuak.


HOTEL MARIA CRISTINA

# 01 Kohesioa eta enplegua

2024an, Donostia guztira 189.865 biztanle izatera iritsi da, 17 auzotan banatuta[11] (horietatik % 52,6 emakumeak dira). 2023arekin alderatuta, urte arteko hazkundea neurritsua baina iraunkorra izan da (+% 0,41), migrazio fluxu positiboen eraginagatik nagusiki (+% 4,4); izan ere, atzerritar biztanleriaren proportzioa % 11 ingururaino igo da. Halaber, 29.874 pertsona, hau da, Donostiako biztanleen % 15,7, atzerrian jaio dira.

Lehen aldiz, 65 urtetik gorako biztanleriak —*silver* belaunaldiak— guztizkoaren % 26 gainditu du. Bizi-kalitate handiaren eta bizi-itxaropenaren etengabeko igoeraren isla da hori. Bilakaera horren ondorioz, trantsizio demografikoa da hiriaren etorkizuneko erronka nagusietako bat.

Lan arloari dagokionez, 2024an Donostiak bataz besteko 84.900 landuneko maximo historikoa erregistratu du, urte arteko % 2,9ko hazkundeak eta % 6,3ko langabezia tasak bultzatuta, EAEko eta estatu osoko batezbestekoa baino txikiagoa den langabezia tasa. Dena den, langabeziak oraindik ere bereziki eragiten die 35-44 urte bitarteko emakumeei (adin-tarte horretako langabeen % 60,4), kualifikazio txikiagoko pertsonei[12] (langabeen % 44,3) eta 55 urtetik gorakoei (langabeen % 35,5).

Modu berean, biztanle atzerritarrek formalizatutako kontratazioetan gehieneko historikoa lortu dute, guztizkoaren % 21 haiek ordezkatuz. Emakumeen presentzia nabarmena da (kontratatutako pertsona horien % 53,6 emakumeak dira), eta latinoamerikarrek protagonismo handia dute tokiko lan-merkatuan (% 54,6).



Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

[11] Landarbaso ez da hiriko auzoen mugaketaren barruan sartzen.
[12] Derrigorrezko ikasketak (DBH).

# Biztanleria

## 1.1

- Donostiak 800 biztanle inguruko hazkundea izan du azken urtean, 1.789 pertsonako migrazio saldo positiboari esker. Hazkunde begetatibo negatiboa orekatzen du horrek.
- 35 urtetik beherako gazteek % 0,8 egin dute gora 2023tik 2024ra bitartean. 2020an hasitako goranzko joera finkatu egin da, eta biztanleria osoaren % 33 izatera iritsi dira. Errealitate hori adin-tarte horretako biztanleria atzerritarraren hazkundeak azaltzen du (% 4,9).

### Analisi demografiko orokorra

### 1.1.1

Donostiak 189.865 biztanle ditu guztira 2024an (99.850 emakume eta 90.015 gizon), alegia, gertu dago 190.000 biztanleko atalasetik.

Zifra horrekin, aurrera jarraitu du azken urteotan arian-arian gertatu den hazkunde demografikoak; 2023tik 2024ra % 0,41eko urte arteko hazkundea egon da.

**2024ko biztanleria, guztira, Donostia |189.865 bizt.**



| 99.850 |
|---|
| % 52,6 |



| 90.015 |
|---|
| % 47,4 |

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

Orobat, hazkunde hori hiriko biztanle atzerritarren dinamismoak azaltzen du (2023 eta 2024 bitartean +% 4,4). Izan ere, biztanleria osoak azken hamarkadan aldaketa neurritsuak izan dituen arren, atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera hobea izan da, baita pandemiaren urteetan ere. Horrela, biztanleria sektore horren ekarpena funtsezkoa izan da hiri osoan saldo demografiko positiboa mantentzeko.

Konparazioa eginda, eta Eustaten datuen arabera, Donostiako 2024ko biztanleria hazkundea Donostialdekoa (% 0,1 eta % 0,2, hurrenez hurren) eta Gipuzkoa osokoa (% 0,4) baino txikiagoa da.

Era berean, Donostiako dinamika demografikoa EAEko beste bi hiriburuetakoa baino neurritsuagoa da: Bilbo (% 0,6) eta Gasteiz (% 0,7).

Gipuzkoako hiriburuak probintziako lau biztanletik bat baino gehiago eta Donostialdeko biztanleriaren % 55,2[13] biltzen du gaur egun.

Hala, errealitate horrekin, hiriak hazkunde neurritsu baina iraunkorreko joera du, lurralde osoko egonkortze demografikoaren testuinguruan. 2015 eta 2024 bitartean, Donostiako biztanleria osoa % 2,1 hazi zen, eta biztanleria atzerritarra, berriz, % 64,4. Horrek agerian uzten du biztanleria horrek ekarpen handia egin diola udalerriaren bilakaera demografikoari.

[13] *Iturria: Biztanleen udal estatistika (BUE). 2024ko urtarrilaren 1a. Donostiak ingurunean duen portzentajezko pisua kalkulatzeko, eta koherentzia estatistikoari eusteko, Eustaten biztanleria-datua (182.892 biztanle) hartu da udal-erroldakoaren ordez.*

# 01

## Donostiako biztanleriaren bilakaera 2015-2024 (zenb.)




## Donostiako biztanleriaren urte arteko bilakaera (%)

| Aldia | Biztanleria osoa | Jatorri atzerritarreko biztanleria |
|---|---|---|
| 2015-2016 | % 0,18 | % 1,7 |
| 2016-2017 | % 0,16 | % 5,4 |
| 2017-2018 | % 0,40 | % 9,0 |
| 2018-2019 | % 0,45 | % 9,4 |
| 2019-2020 | -% 0,05 | % 1,9 |
| 2020-2021 | -% 0,13 | % 1,7 |
| 2021-2022 | % 0,48 | % 12,2 |
| 2022-2023 | % 0,19 | % 5,9 |
| **2023-2024** | **% 0,41** | **% 4,4** |

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

## Hazkunde begetatiboa eta migrazio saldoa

2024an, Donostiako migrazio saldoa 1.789 pertsonakoa izan da. Horrekin, hirian erregistratutako saldo begetatibo negatibo, geroz eta handiagoa dena, nabarmen orekatu ahal izan da. Saldo begetatiboari dagokionez (jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen emaitza), 989 pertsonako galera garbia izan da.

Horrela, eta migrazio fenomenoaren eraginari esker, hiriak 800 pertsonako biztanleria hazkunde garbia lortu du, biztanleriaren beherakada naturala gorabehera.

## Saldo begetatiboaren, migrazio saldoaren eta biztanleriaren hazkundearen bilakaera Donostian. 2000-2024




| | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hazkunde begetatiboa | -241 | -214 | -151 | -148 | -222 | -197 | -246 | -232 | -306 | -251 | -260 | -307 | -435 | -412 | -517 | -544 | -665 | -684 | -649 | -980 | -938 | -1.154 | -941 | -989 |
| Migrazio-saldoa | 484 | 667 | 1.125 | 350 | 650 | 35 | 1.444 | 1.345 | 460 | 830 | 621 | 425 | 71 | 377 | 494 | 883 | 957 | 1.439 | 1.493 | 819 | 655 | 2.091 | 1.306 | 1.789 |
| Biztanleriaren hazkundea | 243 | 453 | 974 | 202 | 428 | -162 | 1.198 | 1.113 | 154 | 579 | 361 | 118 | -364 | -35 | -23 | 339 | 292 | 755 | 844 | -161 | -283 | 937 | 365 | 800 |

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

## Biztanleria-hazkundea auzoka bereizita

Donostia osatzen duten 17 auzoen dinamika demografikoa aintzat hartuta, lurralde-eremuaren arabera ere jokaera desberdinak ikusten dira. Alde batetik, hamar auzok bilakaera positiboa izan dute edo biztanleriari eutsi diote; gainerako zazpiek, aldiz, beheranzko joera izan dute.

Hazkunde demografikoa izan duten auzoen artean, Loiola-Txomin nabarmentzen da bereziki. Urte arteko hazkunde handia izan du, % 5 ingurukoa, eta % 9,6koa auzo horretan bizi diren biztanle atzerritarren artean. Azken urteetan zonaldean etxebizitza berriak garatu izanari dago lotuta hazkunde hori. Ondoren, hazkunde apalagoarekin, Miramon-Zorroaga dago (+% 1,8), eta, segidan, Intxaurrondo (+% 1,6). Azken horri Altzako igoera txikia gehitu behar zaio (+% 0,6); horri esker, Ekialdeko barruti osoak % 0,8ko hazkundea izan du azken urtean.

Intxaurrondo auzoaren kasu partikularrean, gainera, hazkunderik handiena izan da biztanle atzerritarren kopuru absolutuetan, guztira 302 pertsona gehiagorekin. Hala bada, biztanleria atzerritarraren urte arteko % 17 inguruko hazkundea egon da auzoan. Tasa hori askoz handiagoa da hiri osoan biztanle atzerritarren artean erregistratu den urte arteko % 4,4ko tasa baino.

Erdialdeko bilakaera ere aipagarria da; % 1,1eko hazkundea izan du 2023tik 2024ra bitartean. Horrek esan nahi du azelerazioa izan dela aurreko urtean izandako % 0,5eko igoerarekin konparatuta. Halaber, auzorik jendetsuenak, hots, Amara Berrik, joera positibo txikia izaten jarraitzen du (+% 0,2); egonkortze demografikoaren isla da hori. Bi auzoek, bai Erdialdeak, bai Amara Berrik, biztanleria atzerritarraren % 4,5eko hazkundea izan dute. 140 eta 127 pertsonako saldo positiboa zenbatu da, hurrenez hurren.

Aldiz, Gros (–% 0,6) eta Ategorrieta-Ulia (–% 2,1) auzoek biztanleria-galera iraunkorra izaten jarraitzen dute. Antiguo-Ondarretak (–% 0,6) eta Ibaetak (–% 0,5) beheranzko biztanleria joera dute ere.



Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

# 01

**2023-2024ko bilakaera eta biztanleriaren banaketa auzoka. 2024**
(Rankinga auzoen arabera, biztanleria handienetik txikienera ordenatuta)




| Auzoa | Biztanleen kopurua | Bilakaera 2023-2024 | Bizt. atzerritarraren bilakaera 2023-2024 |
|---|---|---|---|
| 1_Amara Berri | 30.243 bizt. | % 0,2 | % 4,5 |
| 2_Erdialdea | 22.515 bizt. | % 1,1 | % 4,5 |
| 3_Altza | 20.611 bizt. | % 0,6 | % 1,8 |
| 4_Gros | 17.831 bizt. | -% 0,6 | -% 0,5 |
| 5_Intxaurrondo | 16.124 bizt. | % 1,6 | % 16,8 |
| 6_Aiete | 14.865 bizt. | % 0,4 | % 3,0 |
| 7_Egia | 14.644 bizt. | -% 0,0 | % 1,7 |
| 8_Antiguo-Ondarreta | 14.176 bizt. | -% 0,6 | % 5,0 |
| 9_Ibaeta | 10.010 bizt. | -% 0,5 | % 4,7 |
| 10_Mirakruz-Bidebieta | 8.839 bizt. | -% 0,2 | % 2,6 |
| 11_Loiola-Txomin | 6.580 bizt. | % 4,7 | % 9,6 |
| 12_Ategorrieta-Ulia | 3.977 bizt. | -% 2,1 | -% 2,4 |
| 13_Añorga | 2.779 bizt. | % 0,9 | -% 8,5 |
| 14_Martutene | 2.723 bizt. | -% 0,1 | % 4,3 |
| 15_Miramon-Zorroaga | 2.475 bizt. | % 1,8 | % 3,6 |
| 16_Igeldo | 1.124 bizt. | +% 1,4 | % 20,8 |
| 17_Zubieta | 317 bizt. | % 1,0 | -% 20,8 |
| **GUZTIRA** | **189.865 bizt.*** | **% 0,41** | **% 4,4** |

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2023ko eta 2024ko abenduaren 31.*

**Landarbaso urbanizatu gabeko landa-barrendegia da eta ez da hiriko auzoen mugaketaren barruan sartzen: 19 biztanle 2024an.*

## Biztanleriaren zahartzea

## 1.1.2

**65 urtetik gorakoak, *silver* belaunaldia, donostiarren % 26 baino gehiago dira jada 2024an.**

2024an, Donostiako biztanleriaren % 26,2k[14] 65 urte edo gehiago ditu. Proportzio hori inguruko lurraldeetan erregistratutakoa baino askoz handiagoa da: % 23,8 Gipuzkoan[15], % 24,0 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta % 20,4 estatu osoan[16].

Hala eta guztiz ere, Donostiako biztanleriaren batez besteko adina egonkor mantentzen da 47 urtetan (45 urte gizonen kasuan eta 49 emakumeenean). Egonkortasun hori, neurri handi batean, biztanleria atzerritarraren batez besteko adin txikiagoari egotz dakioke; 34,5 urtekoa da 2024an.

Joera hori 83,4 urteko bizi-itxaropena duen biztanleria gero eta zaharragoaren testuinguruan sartzen da, hiriko bizi-kalitate handiaren isla da hori.

Zahartze demografikoa ere asko baldintzatzen du jaiotze tasa oso baxuak. 2024an, Donostian 5,7 jaiotza baino ez dira erregistratu 1.000 biztanleko; kopuru hori egonkorra da 2022tik, eta Gipuzkoako (6,3)[17] , EAEko (6,1) eta estatuko (6,6)[18] mailen azpitik dago.

**Zahartze tasaren[19] bilakaera Donostian. 2000-2024**




**Jaiotza indizearen[20] bilakaera Donostian. 2000-2024**




*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

Nolanahi ere, hiriak azken urteetan izan duen saldo begetatibo negatiboa murriztu egingo dela aurreikus daiteke, biztanleria atzerritarra gero eta handiagoaren jaiotza indize handiagoengatik; izan ere, Donostian adin ugalkorrean dauden pertsona gehiago dago horri esker.

Errealitate berri horrek erronka bat planteatzen dio hiriari: jatorri eta sustrai kultural desberdinetatik datozen eta Donostian gero eta gizarte-agertoki anitzagoa osatuko duten donostiarren egungo eta etorkizuneko belaunaldiak integratzea.

[14] Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.
[15] *Iturria: Biztanleen udal estatistika (BUE). Eustat. 2024.*
[16] *Iturria: EIN. Errolda jarraituaren estatistika. 2024.*
[17] *Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika. 2023.*
[18] *Iturria: EIN. Jaiotza-adierazleak. 2023.*
[19] 65 urtetik gorako biztanleen proportzioa biztanleria osoarekiko.
[20] Jaiotza kopurua 1.000 biztanleko, urtebetean.

# 01

## Biztanleria gaztea

### 1.1.3

**35 urtetik beherakoen gorakada txikia egon da; biztanleriaren herena baino zertxobait gehiago dira 2024an.**

2024an, Donostian 35 urtetik beherako 61.737 biztanle daude, hau da, hiriko biztanle guztien herena baino gehixeago.

Proportzio hori adin-talde horrek orain dela bi hamarkada baino gehiago zuen % 39ko proportzioaren azpitik badago ere, azken urteetan bilakaera positiboa izan du. Adin-taldearen pisu erlatiboa pixkanaka handitu da, eta, hala, azken ekitaldian ehuneko bat gehiago izatera heldu da.

**Biztanleria gaztearen bilakaera Donostian (35 urtetik beherakoak) 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024 (zenb. eta %, biztanleria osoaren gainean, eta urte arteko hazkundea)**




*Iturriak: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024ko abenduaren 31.*

## Gazteen mugikortasuna

Gazteen mugikortasunari helduz gero, Donostiak migrazio balantze negatiboa izan du 2024an 35 urtetik beherako biztanleen sarreren eta irteeren artean. 52 pertsonako galera garbia egon da. Datu horrek okerrera egin du 2023an erregistratutakoarekin alderatuta, orduan saldoa -9koa izan baitzen.

Dena dela, emaitza orokor horrek alde handiak ezkutatzen ditu erreferentziako lurralde-eremuaren arabera. Hala bada, migrazio saldoa positiboa da Bizkaiarekin eta Arabarekin (+25 gazte), baita estatu osoarekin ere (+52). Ostera, Gipuzkoako gainerako eremuei dagokienez, saldoa negatiboa da. 273 gazte donostiarren galera garbia egon da urtean —errealitate hori etxebizitzari dago lotuta neurri handi batean—.

Nazioartean, gazteen mugikortasunak joera ona izan du 2024an: EB-27rekiko saldoa ia orekatuta dago (-1), eta munduko gainerako herrialdeekiko oso positiboa da, +145 gazteko saldo garbia baitago hiriaren alde; 2023ko datua (+108) gainditu da.

**Gazteen migrazio-saldoa[21] 2024**

| Migrazio-saldoak | Gazteen balantzea |
|---|---|
| **OROKORRA** | **-52** |
| Gipuzkoa | -273 |
| EAEko gainerako lur.[22] | +25 |
| Estatuko gainerako lur.[23] | +52 |
| EB - 27 | -1 |
| Atzerriko gainerako her. | +145 |

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

[21] Hirian, Gipuzkoatik, EAEtik, Espainiako gainerako lurraldeetatik eta beste herrialde batzuetatik erregistratutako urteko sarreren guztizkoaren eta Gipuzkoara, EAEra, Espainiako gainerako lurraldeetara eta beste herrialde batzuetara bideratutako urteko irteeren guztizkoaren arteko aldea 35 urtetik beherako biztanleriaren artean.
[22] EAEko gainerako lurraldeak, Gipuzkoa zenbatu gabe.
[23] Estatuko gainerako lurraldeak, EAE zenbatu gabe.

## Biztanleria atzerritarra

**1.1.4**

## Tokiko gizartearen gaztetzerako eta aniztasun sozial eta kulturalerako beharrezko biztanleria.

2024an, Donostian bizi diren atzerritarrak 20.163 dira guztira; horietatik 10.201 gizonak dira eta 9.962 emakumeak. Horrela, atzerriko jatorriko biztanleen artean, emakumeen pisua (% 49,4) zertxobait txikiagoa da emakumeek hiri osoan dutena baino (% 52,6).

Kolektibo hori hiriko biztanleria osoaren % 10,6 da, alegia, ehuneko 0,4ko igoera izan da 2023. urtearekin alderatuta. Hala ere, azterketa egiteko jaiotza-herrialdea kontuan hartuz gero, atzerritar jatorriko 30.000 pertsona inguru daude (29.874); biztanleria egoiliarraren % 15,7 da hori.

Zifra horrek % 69ko hazkunde metatua izan du azken hamarkadan; horrek esan nahi du immigrazioak gero eta pisu handiagoa eta iraunkorra duela hiriko dinamika demografikoan.

Atzerritarrek Donostian duten pisu eta ikusgarritasun gero eta handiagoak nabarmen laguntzen du biztanleria gaztetzen eta biztanleriaren hazkundea mantentzen, bereziki jardunean dauden adin taldeetan. Horien presentzia dela eta, biztanleria piramidea orekatuagoa da, eta Donostian jaiotako biztanleriaren zahartze progresiboa orekatzen da.

**Donostiako guztizko biztanleriaren piramidea 2024 (%)**

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*




**Donostian jaiotako biztanleriaren piramidea 2024 (%)**




**Donostian bizi diren atzerritarren piramidea 2024 (%)**



# 01

Biztanleria piramidean ikusten denez, profil demografikoan alde nabarmenak daude jaioterriaren arabera. Hirian jaiotako pertsonen batez besteko adina 47 urtekoa da, eta atzerritarrena, berriz, 34,5 urtekoa.

Alde hori bereziki nabarmena da 30-34 urteko adin-taldean: atzerritar biztanleen artean, % 14 dira, bai gizonetan, bai emakumeetan, hau da, Donostian jaiotako biztanleen artean baino ehuneko 10 puntu baino gehiago (% 4 emakumeetan eta % 5 gizonetan).

Hala, biztanleria piramidea orekatuagoa izatea aurreikusten da etorkizunean, biztanleria heldu gaztearen (30-34 urte) tartea zabaltzen den neurrian, eta, aldi berean, adin ugalkorrean dauden atzerriko biztanleria horri lotutako jaiotza gehiago aurreikusten dira.

## Biztanleria atzerritarraren jatorria.

Bereziki azpimarratzekoa da Latinoamerikako herrialdeetako biztanleen presentzia, pertsona atzerritar guztien % 54 inguru baitira Gipuzkoako hiriburuan. Nazionalitateen arabera, Honduras (% 11,8) da nagusi, eta ondoren Kolonbia (% 10,1) eta Nikaragua (% 9,0) daude.

Atzerritar biztanleak batez ere Ekialdean (% 29,1), Erdialdea-Grosen (% 24,7) eta Amara Berri-Egian (% 23,5) biltzen dira.

**Atzerriko biztanleen herrialde nagusiak Donostian 2024 (%)**




*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

**Biztanleria atzerritarraren prestakuntza mailak agertoki bereiziak marrazten ditu.**

Lanerako adinean dauden atzerritar biztanleen (16 eta 65 urte bitarteko pertsonak) prestakuntza mailan alde handiak daude jatorrizko herrialdearen arabera.

Hezkuntza maila altuena jatorria EB-27 duten biztanleek dute. Adin aktiboan dauden pertsonen % 40 pasatxok unibertsitate-ikasketak egin dituzte. Argentinatik etorritako biztanleak ere gailentzen dira, pertsona aktiboen herenak unibertsitate-ikasketak baititu. Bi proportzio horiek hiri osoan erregistratutako batezbestekoa (% 32 inguru) gainditzen dute.

Hala ere, aipatzekoa da oinarrizko ikasketak dituzten EB-27ko pertsonen ehunekoa % 27 dela; argentinar eta kolonbiar jatorriko biztanleena baino askoz ere proportzio handiagoa da hori (% 8 eta % 10 baino gutxiago, hurrenez hurren). Alde hori, neurri batean, EB-27tik etorritako biztanleriaren barne-heterogeneotasunagatik da. Gehienbat, Frantziatik eta Italiatik (bakoitza % 18 inguru da) eta Errumaniatik (% 16 inguru) etorritako pertsonek osatzen dute.

Kolonbiatik eta Nikaraguatik etorritako pertsonak tarteko maila batean daude, elkarren artean konparatzeko modukoa: bi kasuetan, erdiek baino gehiagok (% 52,4) bigarren mailako ikasketak dituzte, eta % 19,3k unibertsitateko prestakuntza.

Beste muturrean, jatorri marokoarreko biztanleriaren prestakuntza maila txikiagoa dago. Lanerako adinean dauden pertsonen % 88,1ek lehen edo bigarren mailako ikasketa orokorrak soilik egin ditu. Ondoren, Ekuadorretik (% 78,0) eta Hondurastik (% 83,6) etorritako pertsonak daude; horiek ere ehuneko handiak dituzte oinarrizko hezkuntza mailetan.

**Biztanleriaren banaketa ikasketa mailaren arabera, lanerako adinean dauden atzerritar kolektibo nagusien artean (16-65 urte) (%) 2024**




*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*



Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

# 01

## Hezkuntza eta prestakuntza

## 1.2

### Ikasleen komunitatea

### 1.2.1

Gipuzkoako hiriburuko prestakuntza zentroei lotutako ikasleen komunitatean 50.606 ikasle daude 2023-2024 ikasturtean. Hezkuntza maila desberdinetan daude banatuta horiek: derrigorrezko hezkuntza, batxilergoa, lanbide heziketa, unibertsitatea eta helduen hezkuntza.

Esparru horretan, hauek dira talde bakoitzaren araberako errealitate nagusiak:

- Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza: 24.559 ikasle dituzte, hau da, ikasle guztien % 48,5. Zifra zertxobait jaitsi da 2022-2023 ikasturtearekin konparatuta (−% 0,6).
- Batxilergoa (1. eta 2. mailak): 3.746 ikasle ditu; ikasleen komunitatearen % 7,4 da hori. % 2,4ko beherakada izan du aurreko ikasturtearen aldean.
- Lanbide heziketa (oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa): 6.264 ikasle ditu, hots, ikasle guztien % 12,4. Kasu horretan hazkunde handia egon da, urte arteko % 5 ingurukoa.
- Unibertsitatea: unibertsitate-komunitateak izan du hazkunderik handiena: +% 9,6 aurreko ikasturtearekin alderatuta. Hala bada, 1.342 ikasle gehiago ditu, eta 15.324 ikasle izatera iritsi da 2023-2024 ikasturtean.
- Helduen hezkuntza (unibertsitatez kanpokoa): 713 pertsona matrikulatu dira irakaskuntza horietan.

**2023-2024 ikasturtean Donostian matrikulatutako ikasleak**

*Iturria: Eskola jardueraren estatistika. Eustat. 2023/2024.*

| Maila akademikoa | Ikasleen kopurua | % b. |
|---|---|---|
| Haur, lehen eta bigarren hezkuntza* | 24.559 | % 48,5 |
| Batxilergoa | 3.746 | % 7,4 |
| Lanbide heziketa** | 6.264 | % 12,4 |
| Unibertsitateko prestakuntza | 15.324 | % 30,3 |
| Helduen hezkuntza | 713 | % 1,4 |
| **Guztira** | **50.606** | **% 100,0** |

*Barne hartzen du hezkuntza berezia.
**Barne hartzen ditu oinarrizko lanbide heziketa, erdi eta goi mailako lanbide heziketa, zereginen ikasketa eta lanbide heziketako espezializazio ikastaroak.

### Unibertsitateko ikasketak

### 1.2.2

**Unibertsitateko ikasketak dituzten donostiarrak biztanleriaren % 27 baino zertxobait gehiago dira dagoeneko, eta errealitate horrek handitu egiten du hiriko prestakuntza maila eta batez besteko enplegagarritasuna.**

2024an, Donostiako biztanleen % 27,4k unibertsitateko ikasketak ditu.

Adierazle horrek etengabeko hazkunde joera du, eta ehuneko 4,2 egin du gora azken hamarkadan. Generoaren arabera, unibertsitate ikasketak dituzten emakume gehiago daude (% 29,2), horien proportzioa (% 29,2); horien proportzioa gizonena baino ia lau puntu handiagoa da (% 25,5).

**Unibertsitateko titulua duten donostiarren proportzioaren bilakaera. 2014-2024**

*Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. Abenduaren 31.*




Unibertsitate-komunitateak nabarmen egin du gora hiriko campusetan azken urteotan, eta horregatik egon da bilakaera positiboa. 2023-2024 ikasturtean, % 9,6ko gorakada egon da, aurreko ikasturtearekin alderatuz gero.

Ikasturte horretan, 15.324 ikasle izan dituzte Donostian egoitza duten lau unibertsitate zentroek (EHU, Deustuko Unibertsitatea, Tecnun – Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola eta Mondragon Unibertsitatea, Basque Culinary Centerren bitartez), eta horietatik % 55 inguru emakumeak dira (8.389 emakume eta 6.935 gizon).

Era berean, azpimarratzekoa da unibertsitateko ikasketak dituztenen indize handia dagoela EB-27tik eta Argentinatik datozen (% 40,1 eta % 32,9, hurrenez hurren) eta lanerako adinean dauden atzerritarren artean[24].

Hirian unibertsitate titulua duten pertsona asko daudenez, enplegagarritasun handiagoa dago. Hala, EHUren datuei jarraikiz, laneratze tasa % 85ekoa da[26], eta horrek frogatzen du graduatutako gazteen okupagarritasuna oso handia dela. Ehuneko hori puntu bat hobetu da aurreko ikasturtearekin alderatuta, eta titulazio teknikoen kasuan % 94raino iritsi da; aurreko ekitaldian baino hiru puntu gehiago dira horiek.

## Erdi mailako eta goi mailako lanbide heziketa

## 1.2.3

2023-2024 ikasturtean, erdi mailako eta goi mailako lanbide heziketan 5.566 ikasle matrikulatu dira (% 54,8 gizonak eta % 45,2 emakumeak). Matrikula gehienak goi mailako zikloetan izan dira; guztizkoaren % 64 dira horiek.

Gainera, lanbide heziketak goranzko joerari eutsi dio azken bi ikasturteetan hirian egindako matrikulazioei dagokienez (% 2,8), eta EAEn enplegagarritasun indize handiko prestakuntza aukera da.

Ildo horretan, EAEko lanbide heziketa dualean (enpresako eta ikastetxeko ikaskuntza prozesuak uztartzen ditu), azken ikasturtean % 72ko laneratze-tasa[26] lortu da ikasketak amaitu dituztenen artean. Ehuneko hori % 75eraino heldu da emakumeen kasuan, eta bereziki aipagarria da turismoan (% 72) eta energia eta uraren sektorean (% 70).

[24]Lanerako adinean dauden biztanle atzerritarrak (16-65 urte). *Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*
[25]Ikasketak 2021eko ekainean amaitzen dituzten unibertsitateko graduetako promozioa; Euskal Unibertsitate Sisteman ikasketak amaitu dituzten pertsonen laneratzeari buruzko azterlanaren emaitza nagusiak. Lan-bizitzan sartzeari buruzko azterlana. 2024-IV.
[26]Tituludunak euskal hezkuntza-sisteman laneratzeari buruzko estatistika. Lan-egoera 2024ko abenduan. LHko 2023 promozioa.

# 01

## Enplegua

## 1.3

- Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) arabera, biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko estatistika eragiketa jarraikiz, 2024an Gipuzkoako hiriburuak 84.900 landun[27] zituen batez beste (42.900 emakume eta 42.000 gizon).
- Enplegu zifra horrek mugarri historiko berri bat ezarri du. Hala bada, langabezia tasa % 6,3koa da, EAEko beste hiriburuetan baino txikiagoa (Bilbon % 9,5 eta Gasteizen % 7,0), eta Europakotik ez oso urrunekoa (% 5,9).
- Biztanleria aktiboak aurrera egin du, biztanleria landunarekin batera. Guztira 90.900 pertsona dira (45.800 emakume eta 45.100 gizon).
- Lanbiden erregistratutako langabeei erreparatuta, berriz ere ikusten da langabeziaren intzidentzia handiagoa dela emakumeen artean, batez ere 35-44 urte bitarteko emakumeen artean, kualifikazio txikieneko pertsonen artean eta 54 urtetik gorako adin-tartean. Positiboki, iraupen luzeko langabezia[28] erritmo biziagoan murriztu da 2024an.
- Biztanle atzerritarrak 2024an formalizatutako kontratazioen % 21 dira.

## Biztanleria landuna eta aktiboa

### 1.3.1

**2024an, Donostia 84.900 landun izatera iritsi da, eta, horrela, maximoa lortu du hiriaren historia hurbilean; enpleguaren (+% 2,9) eta biztanleria aktiboaren (+% 3,1) urte arteko gorakadari esker gertatu da hori**.

Gipuzkoako hiriburuak 84.900 pertsona landun ditu 2024an, emakumeen (42.900) eta gizonen (42.000) artean modu orekatuan banatuta, zerbitzuen sektoreari lotuta dagoen enplegua.

Bilakaerari dagokionez, maila hori urte arteko % 2,9ko hazkundeari esker lortu da; gainera, tasa horrek dinamismo handiagoa du emakumezko landunen artean (+% 5,7).

Donostiako biztanleria landunaren gorakadak gainditu egin du 2022tik 2023ra bitartean hirian izandako hazkundea (+% 0,5). Bada, 2023tik 2024ra bitartean, Gipuzkoan izandako hazkunde positiboaren antzekoa da (+% 2,9), eta EAE osokoa (+% 1,7) eta EAEko beste bi hiriburuetakoa (+% 0 Bilbon eta +% 1,9 Gasteizen) baino handiagoa[29].

Izan ere, azken hamarkadan, hazkunde hori salbuespen gisa baino ez zen gainditu 2016 eta 2017 artean hirian suspertze ekonomikoa bizi izan zenean (+% 4,7) eta 2021etik 2022ra bitartean, COVID-19 ostean; biztanleria landuna % 7 inguru hazi zen une horretan.

**Biztanleria landunaren bilakaera Donostian. 2015-2024***




** Urteko batezbestekoa*

*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat.*

[27] Lokumentu honetan, biztanleria landuna eta enplegu-tasa Eustaten 2024ko "Biztanleria jardueraren arabera" estatistikaren urteko batezbestekoarekin lotzen da.
[28] Enplegua modu aktiboa bilatzen gutxienez hamabi hilabete daramaten pertsonen kolektiboa, aldi horretan lanik egin gabe.
[29] *Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat.*

**Biztanleria landunaren bilakaera Donostian, Bilbon, Gasteizen, EAEn eta Gipuzkoan. 2023-2024**

*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat. Urteko batezbestekoa.*




Bestalde, 2024ko biztanleria aktiboa 90.900 pertsonakoa da (45.800 emakume eta 45.100 gizon), eta urte arteko hazkunde tasa biztanleria landunaren antzekoa da (+% 3,1). Biztanleria aktiboak % 57,3ko jarduera tasa izan du 2024ko laugarren hiruhilekoan.

Nahiz eta zifra absolutuetan emakumezko biztanleria aktiboak gizonezkoena gainditu duen, eta 2023arekin alderatuta % 4,7 egin duen gora, emakumezkoen jarduera tasan (% 54,7) oraindik ere genero arrakala handia nabari da jarduerari dagokionez, gizonen eta emakumeen jarduera tasaren artean ehuneko 5,6ko aldea baitago. Hala, lan jardueraren eremuko egungo genero arrakala Gipuzkoakoa (ehuneko 6,9) eta EAEkoa (ehuneko 8,1) baino txikiagoa da.

Gainera, oro har, Donostiako jardueratasa EAEkoa (% 56,2)[30] eta EB-27koa (% 56,1)[31] baino altuagoa da.

## Biztanleria langabetua

## 1.3.2

**Berriro ere behera egin du Lanbiden erregistratutako Donostiako langabeen kolektiboak, erritmo apalagoan bada ere (–% 2,2). Oraindik ere alde nabarmenak daude generoaren eta adinaren arabera. Positiboki, iraupen luzeko langabezia moteldu egin da 2024an (–% 3,8).**

Lanbidek 2024ko abenduan erregistratutako langabeziari buruzko datuen arabera, Donostian 6.479 langabetu daude guztira (3.605 emakume eta 2.874 gizon), hau da, langabezia indizea % 7,2koa da[32], eta donostiarren langabezia % 2,2 jaitsi da.

Langabeen kopuruak hainbat gorabehera izan ditu urtean zehar, eta hiriko lan-merkatuaren urtarokotasuna islatzen du horrek. Langabezia maila handienak lehen hiruhilekoan erregistratu dira (urtarrilean 7.063 langabetu), eta txikienak udaberrian (maiatzean eta ekainean) eta abenduan. Urteko minimoa 6.479 pertsonakoa izan da. Azken jaitsiera horrek lotura estua du Gabonetako kanpainako enpleguaren dinamismoarekin.

**Langabeen hileko bilakaera. 2024.**

*Iturria: Lanbide. Langabeak. 2024.*




[30] 2024ko IV. hiruhilekoa. Biztanleria jardueraren arabera. Eustat.
[31] *Iturria: Eurostat. Jarduera-tasa = (∑ aktiboak / ∑ 16 urteko eta gehiagoko biztanleria) x100. 2024ko abendua.*
[32] Langabezia-indizea Lanbideren bulegoetan izena emanda dauden pertsonekin lotzen da, enplegu-bilaketa aktiboa egin edo ez.

# 01

Azken urteetan genero berdintasunaren arloan izandako aurrerapenak gorabehera, gaur egun Donostiako emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, Z belaunaldian izan ezik (25 urtetik beherakoak).

Hala, oro har, 2024ko abenduan emakume langabeen ehunekoa (% 56) gizonena baino (% 44) ehuneko 12 handiagoa da. Alde hori handiagoa da 35-44 urte bitarteko adin-taldean —amatasunarekin eta hazkuntzarekin lotzen da etapa hori—, non arrakala ehuneko 21era iristen den.

Arrakala horrek gaur egun ere badirau, eta agerian uzten du donostiarrek oztopoak dituztela enplegua lortzeko, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eta lan-bizitza baldintza berdinetan garatzeko.

## Gazteen langabezia.

Adinaren haritik, 35 urtetik beherako gazteak lanerako adinean dagoen biztanleriaren (16-65 urte) herena baino zertxobait gehiago dira. Hirian langabezian dagoen kolektiboaren % 24 baino zertxobait gutxiago osatzen dute[33], eta 2024an formalizatutako kontratuen % 56 inguru haienak dira[34]. Horrez gain, 35 urtetik beherako biztanleriaren langabezia maila Gipuzkoa osokoa[35] eta EAEkoa[36] baino txikiagoa da hiriburuan.

## 55 urtetik gorako biztanleriaren langabezia.

Aitzitik, 55 urtetik gorako biztanleen egoera eta joera askoz ere okerragoa da hirian. Biztanleria aktiboaren laurden bat inguru dira; beraz, hiriko langabeen % 35 baino zertxobait gehiago adin-tarte horretakoak dira, eta 2024an formalizatutako kontratuen % 9,5 baino ez dira haienak[37]. Gainera, kolektibo horretako zifrak 2023koen antzekoak dira, eta horrek esan nahi du langabezia kronifikatu egin dela azken adin-tarte horretako pertsonen lan-bizitzan.

Bilakaerari eta biztanleria langabeari dagokionez, biztanleria-tarte horren kasuan, 2014an erregistratutako maximoa (2.573 langabe) murriztea lortu den arren, azken urteetan Lanbideren enplegu zerbitzuetan inskribatutako pertsonen kopurua (2.300 pertsona) baino langabe gehiago daude.

## Biztanle atzerritarren arteko langabezia.

Bestalde, langabe atzerritarrak guztira 982 dira 2024ko abenduan: % 37 latinoamerikarrak eta % 19 baino gutxiago Europako esparru ekonomikokoak. Hirian biztanleri atzerritarrak gora egin duen arren, langabe atzerritarren kopurua % 16 jaitsi da azken hamarkadan.

Kolektibo horrek zifra absolutuetan murrizteko joera badu ere (2014an, 1.180 langabe atzerritar inguru zeuden), gora egin du ordezkaritzari dagokionez; % 15 baino zertxobait gehiagokoa da langabezian dauden donostiarren guztizkoaren gainean. Dena dela, langabe atzerritarren proportzioa txikiagoa da EAEn (% 19,2) eta Gipuzkoan (% 20,6) baino.

[33] % 23,7, Lanbideren 2024ko abenduko zifren arabera.
[34] Lanbide. 2024an kontratatutako pertsonak.
[35] % 25,8 (Lanbide, 2024ko abendua).
[36] % 24,7 (Lanbide, 2024ko abendua).
[37] Lanbide. 2024an kontratatutako pertsonak.

**Langabe atzerritarren bilakaera. 2008-2024 (zenb. eta %, guztizkoaren gainean)**




*Iturria: Lanbide. 2024ko abenduan inskribatutako lan-eskatzaileak.*

## Langabeen ikasketa maila.

Hiriko langabeen ikasketa maila aztertuz gero, hiru inguruabar hauek nabarmendu behar dira:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da Donostiako langabeen zati handi batek oinarrizko ikasketak (lehen edo bigarren mailakoak) baino ez dituela, zehazki % 44,3k (gizonen % 49,4k eta emakumeen % 40,1ek). Proportzio hori % 68 ingurukoa da langabe atzerritarren artean. Errealitate hori Europar Batasunetik kanpoko biztanleriari dago lotuta bereziki; izan ere, oinarrizko ikasketak soilik dituzten 569 langabe Europar Batasunetik kanpokoak dira.
- Bigarrenik, lanbide ikasketak dituzten langabetuek pisu handiagoa hartu dute; hiriko langabeen % 27 baino zertxobait gehiago dira (2023an, % 25,7).
- Hirugarrenik, eta positiboki, ikusten da unibertsitate ikasketak dituzten pertsonek ordezkaritza txikiagoa dutela langabeen artean, % 19tik beherakoa%[38], unibertsitate ikasketak dituztenen ehunekoa % 27,4 da hirian. Errealitate horrek agerian uzten du unibertsitate ikasketak dituen biztanleriak enplegagarritasun handiagoa duela.

**Biztanleria langabea Donostian. 2024**

**Generoaren arabera (%)**



% 56,0 | % 44,0

Guztira **6.479** pertsona

[38] % 15,8 gizonen artean eta % 28,7 emakumeen artean.

# 01

## Biztanleria langabea Donostian. 2024

### Adin-tarteen arabera (%)




### Ikasketa-mailaren arabera (%)




*Iturria: Lanbide. Erregistratutako langabezia. 2024ko abendua.*

## Iraupen luzeko langabeak.

2024ko abenduan, 2.890 pertsona daude iraupen luzeko langabezian (1.728 emakume eta 1.162 gizon), hots, langabe guztien % 44,6, eta langabezian dauden emakumeen % 48 inguru.

Nolanahi ere, kolektibo horrek behera egin du 2023. urtearekin alderatuta (−% 3,8), bai Lanbiden erregistratutako gizon langabeen artean (−% 5,7), bai emakumeen artean (−% 2,5), eta Gipuzkoako eta EAEko mailen azpitik dago.

## Iraupen luzeko langabeak Donostian. 2024 (zenb. eta %)

### Generoaren arabera (%)



**1.728** / % 47,9 langabeen guztizkoaren gainean

1.162 / % 40,4 langabeen guztizkoaren gainean

**Guztira 2.890 pertsona**

*Iturria: Lanbide. Erregistratutako langabezia. 2024ko abendua.*

## Langabezia tasa inguruko txikienetakoa da.

Donostiako langabezia tasa % 6,3koa izan da 2024an, batez beste. Lurraldeko testuingurua ere oso ona izan da, Gipuzkoako langabezia tasa % 5,7koa izan baita. Behera egin du 2023arekin konparatuta (ehuneko 0,2), eta inguruko txikienen artean jarraitzen du, EAEko batezbestekoaren azpitik (% 7,4), bai eta Gasteizen (% 7,0) eta Bilbon (% 9,5) erregistratutakoen azpitik ere. Modu berean, estatu osoak (% 11,3) baino emaitza hobeak ditu Donostiak. Hala ere, 2024. urtean Gipuzkoako hiriburuak Europar Batasunak baino langabezia tasa handiagoa du (% 5,9).

**Langabezia tasaren bilakaera Donostian. 2020-2024**




**Generoa***




**Genero arrakala** **0,9 e.p.**

*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat. Urteko batezbestekoa 2024.*

**2024ko IV. hiruhilekoa.*

**Langabezia tasen alderaketa. 2024**




*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat. Urteko batezbestekoa 2024.*

** Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta (BAI). Urteko batezbestekoa 2024.*
*** Iturria: Eurostat. 2024ko abendua.*

# 01

## Kontratazioak

1.3.3

- **Hiriko lan-merkatuak aurreko bi urteetakoaren antzekoa dinamismoa du; izan ere, 35.000 pertsonatik gora kontratatu dira eta 94.900 kontratu inguru formalizatu dira 2024an[39].**
- **2022tik aurrera kontratazio mugagabeak Lan-erreforma indarrean jarri izanaren ondorioz izan zuen bultzada handia egonkortu egin da Donostiako tokiko lan-merkatuan[40].**
- **Kontratu mugagabeak eta lanaldi osokoak gehiengoa dira Donostiako biztanleria landunaren artean (% 83,8 eta % 83,6, hurrenez hurren[41]), baina 2024an erregistratutako kontratazio dinamikaren proportzioa askoz txikiagoa da: formalizatutako kontratuen % 44,1 mugagabeak izan dira eta % 61,1 lanaldi osokoak[42].**
- **Biztanle atzerritarren kontratazioa hirian kontratatutako pertsona guztien % 21 da dagoeneko.**

2024an zehar, Donostiako enpresa sareak 94.860 kontratu berri formalizatu ditu, guztira kontratatutako 35.072 pertsonen artean. Tokiko kontratatu asko dira horiek, baina, oro har urte arteko % 1,5eko hazkundea izan arren[43], kontratu mugagabea duten pertsonen bolumena % 11,3 murriztu da 2023. urtearekin konparatuta.

Hala, 2024an, formalizatutako kontratazio mugagabeen pisua % 44koa da; proportzio txikiagoa da kontratazio mugagabeak 2023an zuen protagonismoarekin alderatuta (% 50,3). Azken bi urteetan, alegia, 2022an lan erreforma indarrean jarri ostean, formalizatutako kontratu mugagabeen bolumena neurri handi batean finkatu da 2024an.

Biztanleria taldeak aztertuta, kontratatu gehienak oraindik ere 35 urtetik beherakoenak dira. Adin-tarte horretakoak dira 2024an kontratatutako pertsona berrien % 56 inguru.

Aitzitik, 54 urtetik gorakoen kontratazioari dagokionez, 2023. urtearekin alderatuta % 7 inguruko hazkundea izan arren, lan-merkatuan pisu txikiena duen tartea izaten jarraitzen du, 3.335 langile bakarrik kontratatu baitira 2024an (kontratatutako pertsona guztien % 9,5). Gainera, aldi baterakotasuna % 63 ingurukoa da tarte horretan (hirian, batez beste, % 56koa da).

Sektoreka, nabarmentzekoa da 2024an ostalaritzan formalizatutako kontratuen kopurua (16.905), eta, ondoren, osasun jarduera eta gizarte zerbitzuetakoak (16.011) eta merkataritzakoak (11.000 inguru). Orobat, aipagarria da informazioaren eta komunikazioen esparruko kontratuen kopurua (9.623), bai eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetakoak eta hezkuntza sektorekoak ere, oro har antzeko kopurura iristen direlako (9.504).

Lanaldi motaren arabera, kontratuen partzialtasuna % 40 ingurukoa da, eta berriz ere ohikoagoa da emakumeen artean (% 48ko proportzioa); hala bada, genero arrakala ehuneko 19 puntu baino zertxobait handiagoa da.

[39] *Iturria: Lanbideren kontratazio metatuak 2024.*
[40] 2023an kontratazio mugagabeak izandako hazkundea 2022an onetsitako lan-erreformak (32/2021 Errege Lege Dekretua) bultzatutako aldi baterako kontratuen bihurketarekin lotu liteke partzialki. 2024. urtean, ulertzen da aurreko urteetan formalizatutako kontratu mugagabe asko finkatu egin direla, eta, hala, aldi baterako kontratazioak ordezkaritza handixeagoa lortu duela.
[41] *Iturria: Lan-merkatuaren errolda. 2023ko IV. hiruhilekoa.*
[42] *Iturria: Lanbideren kontratazio metatuak 2024.*
[43] Sinatutako kontratuen bilakaera.

**Kontratazioaren dinamismoa Donostian. 2024 (pertsonen eta urteko kontratu sinatuen kop.)**

### Pertsona kontratatu

**35.072 (+% 1,0)**

### Kontratu sinatu

**94.860 (+% 1,5)**

### Adina




### Generoa

**19.236** / % 54,8

**15.836** / % 45,2

### Kontratu mota




### Lanaldi mota




*Iturria: Lanbide. Kontratazio metatuak 2024.*

Nolanahi ere, gaur egun eta orokorrean, kontratu mugagabeak eta lanaldi osokoak gehiengoa dira Donostiako biztanleria landunaren gainean (% 83,8 eta % 83,6, hurrenez hurren[44]).

Azkenik, nabarmentzekoa da pertsona atzerritarren kontratazioak hazkunde handia izan duela hirian, zehazki, 7.349 pertsona kontratu dira 2024an; kontratazio bolumen hori gehieneko historikoa da, eta 2024an formalizatutako kontratazioen % 21 izatera iritsi da (2008an % 14 baino ez ziren). Proportzio horrek aise gainditzen du bere biztanleria pisua (% 10,2) eta, aldi berean, pisu handiagoa du emakumeen kontratazioan (2024an, % 53,6). Hala ere, emakume atzerritarren artean formalizatutako kontratuen erdia baino gehiago lanaldi partzialekoak dira (% 52,2).

Enplegu motaren aldetik, 2024an formalizatutako kontratazioak batez ere jatetxe, arreta pertsonal, babes eta merkataritzako zerbitzuekin lotutako lanpostuenak dira. Guztira, kontratazio osoaren % 36,1 dira.

Ondoren, enplegu ez-kualifikatuei lotutako kontratu asko daude (% 23,5). Kopuru hori, neurri handi batean, iraupen laburreko aldi baterako kontratuen nagusitasunarekin erlaziona daiteke, eta, horregatik, halako enpleguen gehiegizko ordezkaritza dago kontratazio guztietan.

Bestalde, kontratazio guztien % 28 inguru teknikari eta profesionalenak dira: esparru zientifiko eta intelektualekoenak (% 18 inguru) eta teknikari eta profesional laguntzaileenak (% 10,3).

[44] *Iturria: Lan-merkatuaren errolda. 2023ko IV. hiruhilekoa.*

# 01

## Kontratazioen banaketa, enplegu motaren arabera (CNO) (%)




*Iturria: Lanbide. Kontratazio metatuak 2024.*

Pertsona atzerritarren kontratazioa latinoamerikarrekin lotzen da neurri handi batean; izan ere, kontratuen % 54,5 haienak dira eta biztanle atzerritarren % 49,5 dira. Jarraian, jatorri europarreko pertsonak daude, kontratazioen % 17,4rekin. Bestalde, magrebtarrak kontratuen % 12 inguru dira.

## Atzerritar jatorriko pertsonen kontratazioen bilakaera. 2008 vs. 2024 (zenb. eta %, guztizkoaren gainean)




Era berean, biztanle atzerritarren enpleguaren egitura desberdina da kontratu-formari eta lanaldi motari dagokienez. Horrela, positiboki, 2024an formalizatutako kontratuen aldi baterakotasuna txikiagoa da, zehazki, % 44,8koa, estatuko biztanleen artean erregistratutako % 58,8ren aldean. Dena dela, partzialtasuna zabalduxeago dago (% 42,1, vs. % 38,1 estatuko pertsonen artean), eta horrek esan nahi du enplegua lortzeko orduan ordu-karga txikiagoko kontratuen presentzia handiagoa dela.

## Kontratazioen jatorri nagusiak, atzerritar jatorriko biztanleen artean (%). 2024




*Iturria: Lanbide. Kontratazio metatuak 2024.*



# 02 Zerbitzu hiria

2024an, Donostiak azken hiru urteetan lortutako bultzada ekonomikoari eutsi dio, eta % 6,6ra igo da hiriko udal BPGaren termino nominaletan (merkatuan sortzen eta merkaturatzen diren azken ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa), baita zerbitzuen sektoreko BPGan ere.

Errealitate ekonomiko horren oinarria zerbitzuen sektorea da. Bertan, jardunean aritzeko eta enplegua sortzeko aukerak daude, bai aisialdi turistiko eta gastronomia sektoreetan[45] —arlo horretako enplegua % 9 inguru hazi da urte bakar batean, eta 9.812 lanpostu izatera heldu da 2024an—, bai ezagutza-zerbitzu intentsiboetan (EZI) —hiriaren enpleguaren % 35 baino zertxobait gehiago jarduera horretakoa da, eta udal BPGaren erdia inguru sortu du—.


Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

[45]EJSN. Jatetxeak: 5610 Jatetxeak eta janari-postuak; 5621 Ekitaldietarako prestatutako janariak hornitzea; 5629 Bestelako janari-zerbitzuak; 5630 Edari-establezimenduak. Ostatua: 5510 Hotelak eta antzeko ostatuak; 5520 Turismo-ostatuak eta egonaldi laburreko bestelako ostatuak; 5530 Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak; 5590 Bestelako ostatuak; erabilera turistikoko etxebizitzen jarduera barne. Antolaketa: 7911 Bidaia-agentzien jarduerak; 7912 Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak; 7990 Bestelako erreserba-zerbitzuak eta horiekin lotutako jarduerenak; 8230 Konbentzioak eta erakustazokak antolatzea.

## Udal BPGa

## 2.1

- Gipuzkoako hiriburuak 9.357 milioi euroko balio nominala duen udal BPGa sortu du, eta aurreko urtekoa baino urte arteko hazkunde (+% 6,6) handiagoa izan du aurten. Urte arteko hazkunde hau lurralde eta autonomia mailan izandakoa (+% 5,0) baino handiagoa da ere.
- Biztanleko BPG nominalak % 6,4ko urte arteko hazkundea izan du, eta 51.159 euroko batez besteko maila du.

**Tokiko produkzio jardueraren hazkundearen finkapena.**

2024an, hiriko ehun ekonomikoak 9.357 milioi euroko BPG nominala[46] sortu du; zifra horrek 2021etik izandako joera positiboa finkatzen du.

Gorakadak gainditu egin du iazko tokiko tasa (+% 5,5), eta, modu berean, ehuneko 1,6an gainditu du Gipuzkoan eta autonomia-mailan erregistratutako martxa ekonomiko positiboa (+% 5,0 nominala bi kasuetan).

Inflazioaren eragina kenduta (% 3,6koa da aurten[47]), Donostiako BPGaren hazkunde erreala % 3,0koa da.

**Udal BPG nominalaren bilakaera Donostian, Gipuzkoan eta EAEn. 2023-2024 (milioi €)**

*Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak eta Hiruhileroko kontu ekonomikoak (HKE). 2023 eta 2024.*

| | 2023 | 2024 | 2023-2024 bilakaera |
|---|---|---|---|
| Donostia | 8.781 | 9.357[48] | +% 6,6 |
| Gipuzkoa | 30.957 | 32.504 | +% 5,0 |
| EAE | 92.680 | 97.293 | +% 5,0 |

**Donostiako biztanleko BPG nominalaren gorakada, EAEko eta Gipuzkoako batezbestekoa gainditzen duen adierazlea.**

Tokiko biztanleko BPG nominala adierazle bat da, eta hiriko produkzio-saretik eratorritako oparotasun- eta aberastasun-maila biztanle bakoitzeko teorikoki nola banatzen den erakusten du. Hala bada, egoiliar bakoitzeko batez besteko maila 51.159 € nominalekoa da.

Ratio horrekin, hiria...

- maila gorenean dago hiriaren azkenaldiko ildo historikoan, eta duela bost urte lortutako maila 6.000 euro nominaletan gainditzeraino iristen da.
- Gipuzkoako batezbestekoa baino maila handiagoan dago(% 13,8 handiagoa), eta EAEko batezbestekoa baino maila are handiagoan (% 16,1 handiagoa).

[46]Donostian 2024an ekoitzitako ondasun eta zerbitzu guztien balio nominala.
[47]*Iturria: Eustaten Kontsumorako prezioen indize orokorra. Urteko batez besteko aldakuntza 2024.*
[48]Donostiarako kalkulatutako datua, honako elementu hauen bilakaera kontuan hartuta, 2023ko ekitaldiari dagokionez: EAEko hiruhilekoko BPGaren sektorekako bilakaera (Eustaten Hiruhileroko kontu ekonomikoak), EAEko eta Donostiako enpleguaren sektorekako bilakaera, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren bidez.

02

Donostiako biztanleko udal BPG nominalaren bilakaera, Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta. 2017-2024




*Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak, Hiruhileroko kontu ekonomikoak (HKE); Biztanleen udal estatistika (BUE). 2024ko urtarrilaren 1a.*

## Donostiako enpresa-sarea

## 2.2

- Donostiako enpresa-sarearen kasuan, gainerako hiri-ekonomien antzera, enpresa-parkea eta establezimendu fisikoen kopurua murrizten ari da lau sektore ekonomiko handietan.
- Bi lanpostu baino gutxiagoko mikroenpresak Donostiako enpresa-ehunaren % 72 dira.
- Nolanahi ere, 10 lanpostu baino gehiago dituzten enpresek 67 irekiera garbi izan dituzte 2023tik 2024ra bitartean, eta hiriak, 2024an, 48 gazela-enpresa[49] ditu jada.

Donostiako enpresa eta establezimenduen kopurua. 2024

**Enpresak dute egoitza Donostian**

15.384

**Enpresa aritu dira jardunean Donostian***

16.838

**Establezimendu**

17.930

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*
**Egoitza Donostian edo udalerritik kanpo dutenak.*

**Enpresa-parke murritzagoa da, baina dimentsio handiagoko enpresek enplegu gehiago sortu dute hirian.**

Tokiko ekonomia- eta produkzio-sarea, 2024an, sozietate-egoitza hiriburuan duten 15.384 enpresak osatu dute guztira, baina, gaur egun hirian jarduten duten enpresen multzoa kontuan hartuz gero, hiran 16.838 enpresa daudela esan genezake.

[49]Gutxienez 10 lanpostutik abiatuta, hiru urtean tamaina gutxienez bikoiztea lortzen duten enpresak.

Enpresa-sareak 17.930 establezimendu fisiko ditu guztira, eta 101.409 lanpostu sortu dituzte 2024an —errekorra da hori— [50].

Bilakaerari dagokionez, hirian jarduten duten enpresen kopuruak eta establezimendu-parkeak beheranzko joera izaten jarraitzen dute (–% 1 eta –% 0,9, hurrenez hurren). Joera hori bat dator hurbileko gainerako hiri-ekonomietan gertatzen ari denarekin.

Hala ere, hirian sortutako enplegua maximo historikora heldu da, eta horrek agerian uzten du enpleguak gero eta kontzentrazio handiagoa duela establezimenduko.

Zifra absolutuetan, 2023 eta 2024 bitartean 222 enpresaren galera garbia izan da. Dena den, establezimendu gutxiago itxi dira, 155 guztira.

Horrela, 2024an hirian jardunean aritu diren enpresen multzoa gai izan da establezimendu berriak ireki eta lanpostu berriak sortzeko; tokiko enpleguan % 2,7ko hazkundea izan da, 2.657 lanpostu berrirekin.

**Urte arteko enpresa-saldo garbiaren bilakaera. 2021-2024**




*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*

Establezimendu-parkearen kontzentrazioa neurri handiagoan edo txikiagoan gertatzen da tokiko ekonomiaren lau jarduera-sektore handietan (lehen sektorea, industria, eraikuntza eta zerbitzuak).

Lehen sektoreak urte arteko galerarik handiena du ehunekoetan, % 12 ingururainokoa, hau da, hiriko 8 nekazaritza- eta abeltzaintza-establezimenduren itxiera garbia egon da. Ostera, industriako establezimendu-parkeak, hirian presentzia askoz mugatuagoa duena, establezimendu kopurua mantentzea lortu du (–% 0,6).

Eraikuntzak, sektoreko pisu askoz txikiagoarekin (% 7,5), 54 establezimenduko itxiera garbia izan du.

Bestalde, zerbitzuen sektoreak balantze garbi negatiboa du: 90 establezimendu galdu ditu 2023tik 2024ra bitartean (erregistratutako itxiera garbi guztien % 58). Nolanahi ere, % 90 inguruko (% 89,2) enpresa-protagonismoa du hiriko establezimendu-parkean.

Hiriko establezimendu fisikoen parkearen murrizketa-egoera horretan, positiboan nabarmentzen da zerbitzu-sektoreko adar jakin batzuei lotutako enpresa-parkearen hazkundea. Hala, informazio eta komunikazioen adarrak 20 establezimenduko saldo garbi positiboa du 2023tik 2024ra bitartean; ildo horri jarraitzen diote hezkuntza-adarrak (13 irekiera garbi, 2023arekin konparatuta), erreserba-zerbitzuek eta antolaketa turistikoko jarduerek (9 establezimenduko saldo garbi positiboa) eta medikuntza espezializatuko jarduerek (8 irekiera garbi 2023 eta 2024 artean).

[50] *Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*

# 02

**Donostiaren enpresa-dentsitatea, estatuko beste hiriburu batzuekin alderatuta. 2024**

*Iturria: EIN. Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) eta Udal-errolda. 2024ko urtarrilaren 1a.*




**Donostia, hiri ertaina den arren, estatuan enpresa-dentsitate handiena duten hiriburuen artean dago.**

Gipuzkoako hiriburuak 189.865 biztanle ditu; milioi erdi biztanletik gora dituzten estatuko hiri handien oso azpitik dago. Hala ere, enpresa-dentsitateari dagokionez, laugarren hiri izatea lortu du arlo ekonomikoan.

Horrela, Donostia, 1.000 biztanleko 81 enpresako ratioarekin, Bilbo (73), Malaga (72) eta Sevillaren (71) gainetik dago; Valentziako hiriburuaren antzeko mailan dago (82), eta ez hain urrun Madrilgo hiriburuaren (85) mailatik. Testuinguru horretan, Bartzelona estatuko buru da; 1.000 biztanleko 101 enpresako dentsitate maximoa du.

**50 lanpostu baino gehiago dituzten enpresak nagusitu egin dira, eta dagoeneko hiriko enpleguaren % 44 haiena da.**

2024ko datuek aurreko ekitaldietan eta hurbileko gainerako ekonomietan ikusitako joera berresten dute. Donostiako enpresa-sarearen morfologia pixkanaka ari da eraldatzen; “handiak” gorantz ari dira establezimenduen kopuruan eta enpleguaren kontzentrazioan, baina “txikien” kaltetan (2 lanpostu baino gutxiagoko establezimenduak). 2023 eta 2024 bitartean, 226 establezimendu “txikiren” itxiera garbia erregistratu da.

Gorakada horri helduta, nabarmentzekoa da 10 eta 49 lanpostuko enpresa-tartea; guztira 55 establezimendu berri ireki dituzte.

Bestalde, establezimendu handiek (50 lanpostu baino gehiago) beste 12 establezimendu berri dituzte, eta hirian sortutako guztizko enpleguaren % 44 haiena da (2023arekin alderatuta, +% 0,3).

**Establezimenduen banaketa eta bilakaera, enpresa-establezimenduaren tamainaren arabera. 2023-2024**

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. Bilakaera 2023ko urtarrilaren 1aren eta 2024ko urtarrilaren 1aren artean.*

| | Establezimenduen tamaina | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **< 2 lanpostu** | **3-9 lanpostu** | **10-49 lanpostu** | **> 50 lanpostu** |
| Establezimenduen kop. 2024 | 12.889 | 3.478 | 1.277 | 286 |
| Establezimenduen bilakaera 2023-2024 (zenb. eta %) | -226 (-% 1,7) | +4 (+% 0,1) | +55 (+% 4,5) | +12 (+% 4,4) |
| | | | | |
| Establezimenduen %, guztizkoaren gainean | % 71,9 | % 19,4 | % 7,1 | % 1,6 |
| Enpleguaren %, guztizkoaren gainean | % 15,1 | % 16,2 | % 24,6 | % 44,1 |

**Mikroenpresak hiriko enpresa-ehuna ezaugarritzen jarraitzen du.**

Hiriko establezimenduen ia % 72k bi lanpostu baino gutxiago ditu, eta, horrexegatik, mikroenpresak oraindik ere garrantzia handia du hiriburuko ekonomia- eta produkzio-sarean. Egitura hori bat dator Bilbon (% 74,2) eta Gasteizen (% 67,1) erregistratutakoarekin, alegia, patroi berdina nabari da EAEko hiriburuetan: tamaina txikiko enpresa-sarea da nagusi.

**Enpresa-dinamismoari erreparatuta, gazela-enpresa deiturikoei lotutako jokaera positiboa da.**

Gutxienez 10 lanpostutik abiatuta, hiru urtean tamaina gutxienez bikoiztea lortzen duten enpresak dira horiek.

Zentzu horretan, Gipuzkoako hiriburuak dagoeneko 48 gazela-enpresa ditu, aurreko urtean baino bederatzi gehiago. Hirian berrogeita hamar enpresa baino ez dituen enpresa-sare honek 3.265 lanpostu sortzeko gai da. Horietatik, % 25 ikerketa eta garapen (I+G) jardueretan aritzen dira, eta, ondoren, arkitektura- eta ingeniaritza-zerbitzu teknikoen eta ostalaritza-zerbitzuen adarrak daude. Azkeneko bi adar hauek % 8,2ko ordezkaritza dute enpresa-tipologia horrek sortutako guztizko enpleguan.

Gazela-enpresen eta sortutako lanpostuen kopuruaren bilakaera. 2021-2024

| | 2021 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|
| Enpresak | 23 | 39 | 48 |
| Lanpostuak | 1.411 | 2.642 | 3.265 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE).*
**2022. urtea, pandemiaren eraginpean*

## Udal-sare ekonomikoaren sektore-azterketa

## 2.3

- Zerbitzuen sektoreak % 88,3ko ekarpena du udal BPGan, eta sektore horretakoa da 2024an hirian sortutako enpleguaren % 91,4.
- Zerbitzuen enpresa-protagonismoa eta hirugarren sektoreko erreferentziazko kapital gisa hiriak duen posizionamendua hiri-ekonomiaren dentsitateagatik da (ia 24 establezimendu 1.000 biztanleko); izan ere, biztanle gehiago dituzten hiriburuena baino handiagoa da (Madril, Sevilla, Bilbo edo Valentzia).
- Industriako enpleguak dinamismo handiagoa du (+% 6,6); eraikuntzak eta lehen sektoreak, berriz, 2023 urtean erregistratutako enplegu-zifrak mantendu dituzte gutxi gorabehera, nahiz eta biek behera egin establezimenduen kopuruari dagokionez.

Orokorrean, udal BPG nominalak gora egin du lau jarduera-sektore nagusitan. Azpimarratzekoa da industria-sarearen dinamismoa: BPGa %8 inguru hazi da, eta enplegua berriz %6,6. Lehen sektoreak bere aldetik enplegu-zifrak mantendu ditu, eta eraikuntzak enplegu-maila pixka bat igotzea lortu du (+% 1,1).

# 02

**BPG nominalaren, establezimenduen eta lanpostuen sektorekako banaketa eta urte arteko bilakaera. 2024**

| | BPG | | | Establezimenduak | | | Lanpostuak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zenb. | Pisua (%) | Bil. (%) 2023-2024 | Zenb. | Pisua (%) | Bil. (%) 2023-2024 | Zenb. | Pisua (%) | Bil. (%) 2023-2024 |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 6.419.817 | % 0,1 | +% 4,9 | 59 | % 0,3 | -% 11,9 | 132 | % 0,1 | -% 0,8 |
| Industria eta energia | 566.292.064 | % 6,1 | +% 7,9 | 523 | % 2,9 | -% 0,6 | 4.404 | % 4,3 | +% 6,6 |
| Eraikuntza | 521.009.172 | % 5,6 | +% 3,9 | 1.351 | % 7,5 | -% 3,8 | 4.228 | % 4,2 | +% 1,1 |
| Zerbitzuak | 8.262.793.447 | % 88,3 | +% 6,6 | 15.997 | % 89,2 | -% 0,6 | 92.645 | % 91,4 | +% 2,6 |
| **GUZTIRA** | **9.356.514.500** | **% 100,0** | **+% 6,6** | **17.930** | **% 100,0** | **-% 0,9** | **101.409** | **% 100,0** | **+% 2,7** |

*Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak eta Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2024ko urtarrilaren 1a.*

**Zerbitzuen sektorea udal eragile ekonomiko nagusi gisa finkatzea: BPG nominala, establezimenduak eta enplegua.**

Hirugarren sektoreak, 2024an, 8.262 milioiko bolumena izan du, hots, udal BPGaren % 88,3. Hiriko zerbitzuek 16.000 establezimendu inguruko enpresa-sarea dute (guztizkoaren % 89,2), eta hiriko lanpostuen % 91,4 sortzen dute horiek.

Hirugarren sektoreko enplegua 92.645 lanpostukoa da, eta % 2,6 egin du gora azken urtean. Hala, jarraipena eman dio 2022tik 2023ra bitarteko hazkundeari, eta, gainera, gainditu egin du (+% 2,2).

**Hirugarren sektorearen pisua**

**BPG**

% 88,3

**LANPOSTUAK**

% 91,4

**ESTABLEZIMENDUAK**

% 89,2

**Zifra konparatiboki handiagoak daude Donostiaren protagonismoaren eta hirugarren sektoreko posizionamenduaren atzean.**

Zerbitzuen sektoreak eta hiri-ekonomiak Gipuzkoako hiriburuan duten garrantzia are nabarmenagoa da EAEko beste bi hiriburuekin eta hurbileko beste hiriburu batzuetako eta estatuko ratioekin erkatuz gero.

Donostiako establezimenduen % 89 baino zertxobait gehiagok zerbitzuen sektorearekin dute zerikusia. Horrela, Bilboren (% 86,9) eta Gasteizen (% 82,6) hirugarren sektoreko ordezkaritza gainditzen du.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, hiri-ekonomiaren dentsitateari dagokionez (merkataritza, ostalaritza eta garraioa)[51], Donostiaren posizionamendua aipagarria

[51]Txikizkako eta handizkako merkataritza, garraioa eta ostalaritza.

da (ia 24 establezimendu 1.000 biztanleko 2024an). Izan ere, biztanleria-tamaina handiagoko hiriburuen batez besteko ratioak gainditzen ditu: Valentzia (23,6 establezimendu 1.000 biztanleko), Bilbo (23,3), Sevilla (22,4) edo Madril (20,9).

Zentzu horretan, Gipuzkoako hiriburua hauen azpitik geratuko litzateke soilik:

- Bartzelona (27 establezimendu inguru 1.000 biztanleko) eta Malaga (24,2).

**Zerbitzuen sektorearen pisuaren alderaketa (establezimendu kopurua). EAEko hiriburuak**

*Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2024ko urtarrilaren 1a eta Biztanleen udal estatistika.*




**Donostiako hiri-ekonomiaren dentsitatea, inguruko hiriekin eta beste hiriburu autonomiko batzuekin alderatuta. 2024**

*Iturria: EIN. Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE). Udal-errolda. 2024ko urtarrilaren 1a. Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioa, ostatua eta jatetxeak.*




Hiriak dituen zerbitzu-adarrei erreparatuta, azpimarratzekoa da ezagutza-zerbitzu intentsibo delakoen (hemendik aurrera, EZI) udal-ekarpen produktiboa eta ekonomikoa. Hortaz, enpresa-sare horrek —hiriburuko establezimenduen eta lanpostuen % 35 inguru da—, % 48ko produkzio-ekarpena egiten dio BPGari.

Bestalde, zerbitzu operatiboek — besteak beste, txikizkako merkataritza (enpleguaren guztizkoaren % 8,6) eta aisialdi turistiko eta gastronomia sektorea (enpleguaren guztizkoaren % 9,7) biltzen dituzte—, udal BPG nominalaren % 40 eta enpleguaren % 56 baino zertxobait gehiago sortu dute 2024an.

02

**BPG nominalaren, establezimenduen eta lanpostuen banaketa zerbitzuen sektorean. 2024**

** Informazioa eta komunikazioak, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, arte-, jolas- eta entrenamendu-jarduerak, finantza- eta aseguru-jarduerak, higiezin-jarduerak, albaitaritza-jarduerak, administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte-segurantza, merkataritzako bitartekariak, handizkako merkataritza, mantentze-lanak eta konponketa, beste zerbitzu batzuk, gizarte-zerbitzuak eta antzekoak, eta garraioa eta biltegiratzea.*

*Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak eta Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2024ko urtarrilaren 1a.*

| | Euroak | B. (%) | Establezi-menduak | B. (%) | Lanpos-tuak | B. (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **a) Ezagutza-zerbitzu intentsiboak (EZI)** | 4.486.696.841 | % 48,0 | 6.372 | % 35,5 | 35.556 | % 35,1 |
| a.1.- EZI - Enpresak | 2.061.900.916 | % 22,1 | 4.034 | % 22,5 | 14.146 | % 13,9 |
| a.2.- EZI – Pertsonak (SEPES) | 2.424.795.925 | % 25,9 | 2.338 | % 13,0 | 21.410 | % 21,1 |
| a.2.1.- Pertsonentzako zerbitzuak: hezkuntza | 1.014.455.313 | % 10,8 | 846 | % 4,7 | 9.608 | % 9,5 |
| a.2.2.- Pertsonentzako zerbitzuak: osasuna | 1.410.340.612 | % 15,1 | 1.492 | % 8,3 | 11.802 | % 11,6 |
| **b) Zerbitzu operatiboak** | 3.776.096.605 | % 40,3 | 9.625 | % 53,7 | 56.771 | % 56,1 |
| b.1.- Txikizkako merkataritza | 495.767.607 | % 5,3 | 2.357 | % 13,1 | 8.667 | % 8,6 |
| b.2.- Aisia, turismoa eta gastronomia | 611.446.715 | % 6,5 | 1.630 | % 9,1 | 9.812 | % 9,7 |
| b.3.- Beste zerbitzu operatibo batzuk* | 2.668.882.283 | % 28,5 | 5.638 | % 31,4 | 38.293 | % 37,8 |
| **Zerbitzuen sektorea, guztira** | **8.262.793.447** | **% 88,3** | **15.997** | **% 89,2** | **92.327**[52] | **% 91,1** |

# Hiri-ekonomiaren sektoreak

## 2.4

Zerbitzuen eremuan, eta hirugarren sektorerako bokazio historikoa duen lurralde-hiriburu gisa, funtsezkoa da enpresa-parkearen eta enpleguaren bilakaera aztertzea jarduera edo “indar sektorial” nagusietan, adibidez, hiri-ekonomian eta ezagutza-ekonomia intentsiboan. Hiri-ekonomiaren azterketaren barruan, txikizkako merkataritza fisikoa eta aisia-, turismo- eta gastronomia-sektoreari lotutako enpresa- eta lan-sare gero eta handiagoa sartzen dira.

### Txikizkako merkataritza

Donostiak txikizkako 2.357 saltoki ditu 2024an, hau da, hiriko establezimendu guztien % 13,1 eta Gipuzkoa osoko txikizkako merkataritza-sektorearen % 31 inguru.

Establezimendu-parke horren kasuan, hirian merkataritza-fatxada duten establezimendu fisikoen kopuruak etengabe murrizten jarraitzen duen arren —% 2,3ko beherakada izan du 2023tik 2024ra bitartean, 2022tik 2023ra bitartean bizi izandakoaren antzekoa (% 2,6)—, zertxobait hobetu dira enpleguaren zifrak (+% 1,4).

Horrela, hiriko txikizkako merkataritzak, 2024an, 8.666 lanpostu sortu ditu guztira. Gaur egun enplegu-nitxo handia dela esan genezake (guztizko enpleguaren % 8,6). Aldi berean, profil argi eta garbi femeninoa du txikizkako merkataritzak; sektoreko lanpostuen % 70 emakumeek betetzen dituzte.

Orobat, sektore horretako lanpostuen % 79 baino zertxobait gehiago[53] soldatako langileenak dira; ostera, % 20 baino zertxobait gehiago autonomoenak dira (autonomoek hiriko zerbitzuetan

[52] 1. ohar metodologikoa: 2024ko zerbitzuen sektoreko lanpostuak (92.645) EZIen jarduera-adar eta zerbitzu operatibo bakoitzera banatu eta egozteari dagokionez, Donostia Sustapenak egin du kalkulua, eta Eustaten lagin-banaketaren araberakoa da; konfidentzialtasun-printzipioarekin bat, Eustatek ez du daturik ematen mikro mailako establezimendu bakar bat agertzen bada, datu pertsonalak babesteko helburuarekin. Hori dela eta, taulan agertzen den zerbitzuen kopuru orokorra (92.327) ez dator bat Donostiako zerbitzuen sektorean zenbatutako 2024ko lanpostuen guztizkoarekin (92.645).

[53] *Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazioak 2024.*

duten pisua baino ehuneko 10 gehiago, gutxi gorabehera).

Hiriburuko 2024ko saltokiak behatuz gero, pisu esanguratsua dute eguneroko ondasunen eta elikagaien saltokiek. Izan ere, horienak dira saltokien % 30 inguru eta lanpostuen % 35. Ondoren, moda-saltokiak daude; establezimenduen eta lanpostuen % 24 hartzen dute.

Txikizkako merkataritzak 3,7 lanpostu ditu establezimendu bakoitzeko batez beste. Zifra hori hiriko jarduera ekonomiko guztien batezbestekoa (5,7 lanpostu) baino askoz txikiagoa da, eta agerian uzten du sektorearen mikro profil nabarmena.

**Establezimenduen eta lanpostuen banaketa txikizkako merkataritzako jarduera-adarren arabera (zenb. eta %) 2024**

| | Establezimenduak | | Lanpostuak | |
|---|---|---|---|---|
| | **Zenb.** | **B. (%)** | **Zenb.** | **B. (%)** |
| Eguneroko ondasunak + elikadura | 700 | % 29,7 | 3.016 | % 34,8 |
| Moda, oinetakoak eta osagarriak | 577 | % 24,5 | 2.089 | % 24,1 |
| Etxeko ekipamendua | 266 | % 11,3 | 728 | % 8,4 |
| Drogeria, lurrindegia eta farmazia | 177 | % 7,5 | 771 | % 8,9 |
| Aisia eta kultura | 141 | % 6,0 | 555 | % 6,4 |
| Elektronika eta komunikazioak | 87 | % 3,7 | 243 | % 2,8 |
| Ibilgailuen salmenta | 64 | % 2,7 | 364 | % 4,2 |
| Establezimenduko bestelako txikizkako saltokiak | 264 | % 11,2 | 780 | % 9,0 |
| Establezimendutik kanpoko txikizkako jarduera | 80 | % 3,4 | 121 | % 1,4 |
| **Guztira** | **2.357 establezimendu** | **% 100,0** | **8.666 lanpostu** | **% 100,0** |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*

Nolanahi ere, merkataritza-azpisektoreek jokaera desberdinak eta bereiziak dituzte; hala, adarren arabera, hirian 2023tik 2024ra bitartean izandako merkataritza-errealitate hauek nabarmendu behar dira:

- Ekipamendu pertsonalaren eta etxeko ekipamenduaren adarrek merkataritza-parke egonkorra dute 2023arekin konparatuta, eta, gainera, enplegu-zifrak handitzea lortu dute, % 3 etxeko ekipamenduaren kasuan eta % 6,1 modaren kasuan. Enplegua soldatako araubideari dago lotuta neurri handi batean.
- Aitzitik, txikizkako merkataritza azpi-sektoreen artean, oraindik ere eguneroko ondasunen eta elikagaien merkataritzak sortzen du merkataritza-enplegu gehien hirian (% 35 inguru), baina beherakada izan du merkataritza-parkearen tamainari (−% 4,4), eta enplegu-bolumenari (−% 1,5) dagokienez.

Begirada EAE osoan jarriz gero, Donostia, alde batetik, erreferentziazko merkataritza-plaza da, merkataritza-dentsitate handiena duen EAEko hiriburua delako (13 saltoki 1.000 biztanleko vs. 12 Bilbon eta 9 Gasteizen), eta, bestetik, erreferentziazko

# 02

gunea da eskualde eta lurralderako, dentsitate txikiagoa dutelako (11 eta 10 saltoki 1.000 biztanleko, hurrenez hurren).

Ildo beretik, hiriaren erdialdeko merkataritza-dentsitatea 39,8 establezimendukoa da 1.000 biztanleko[54], eta horrek agerian uzten du Gipuzkoako hiriburuko hirigunea oso erakargarria dela merkataritzarako. Erldialdearen osagarri Gros auzoko merkataritza-eskaintza dugu; merkataritza-dentsitate handia du horrek ere (22,5 establezimendu 1.000 biztanleko).

Donostiako merkataritza-dentsitatea Donostialdearekin, Gipuzkoarekin, Bilborekin eta Gasteizekin alderatuta. 2024




*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat eta Biztanleen udal estatistika. Eustat 2024.*

## Aisialdi turistiko eta gastronomia sektorea.

Ostalaritzak (ostatuak eta jatetxeak), hiriko zerbitzu turistiko eta gastronomikoekin batera —besteak beste produktu eta esperientzia turistikoen eskaintza zabala eta ekitaldien agenda sendoa barne—dinamismoa eta bultzada handia izan du jardueran eta enpleguan azken urteotan.

- 2019arekin erkatuz gero (erreferentzia-urtea, pandemia gertatu aurreko inflexio-puntu gisa), % 10 inguruko hazkundea izan du enpleguari dagokionez.
- 2023arekin alderatuta, enpleguaren % 8,7ko gorakada nabarmena izan du urte bakar batean.

Enplegua jatetxe, taberna eta kafetegien jarduerarekin dago lotuta neurri handi batean. Esparru horretakoak dira aisialdi turistiko eta gastronomia sektoreko establezimenduen % 73, bai eta enpleguaren % 76 ere. Sektore hau 560 lanpostu garbira iritsi da urte bakar batean, eta horietatik 504 jatetxe-arlokoak dira.

Bestalde, ostatu-jarduerak (Aisialdi turistiko eta gastronomia sektoreko establezimenduen % 17 eta enpleguaren % 21 inguru), 2024an gorakada izan du enpleguan; 217 enplegu garbi gehiago lortu ditu 2023arekin konparatuta.

Azkenik, antolaketa-jarduera —bidai-agentziei, operadoreei, turismo-gidei eta antzekoei lotutako jarduera— profil atomizatua du, enpresa-egitura murritzagoa. Jarduera horrek, establezimendu guztien % 10,4 izan arren, % 3,5eko ekarpena baino ez dio aisialdi turistiko eta gastronomia sektoreari.

[54] *Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat eta Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.*

**Establezimenduen eta lanpostuen banaketa, aisia- eta turismo-sektoreko azpisektoreen arabera (zenb. eta %). 2024**

| | Establezimenduak | | Lanpostuak | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenb. | B. (%) | Zenb. | B. (%) |
| **Ostatu-zerbitzuen establezimenduak** | **274** | **% 16,8** | **2.021** | **% 20,6** |
| Hotelak eta antzeko ostatuak | 178 | % 10,9 | 1.684 | % 17,2 |
| Turismo-ostatuak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk | 83 | % 5,1 | 200 | % 2 |
| Beste ostatu batzuk | 13 | % 0,8 | 137 | % 1,4 |
| **Jatetxe-arloko zerbitzuen establezimenduak** | **1.186** | **% 72,8** | **7.445** | **% 75,9** |
| Jatetxeak eta janari-postuak | 616 | % 37,8 | 5.239 | % 53,4 |
| Edarien establezimenduak | 532 | % 32,6 | 1.734 | % 17,7 |
| Beste zerbitzu batzuk (catering) | 38 | % 2,3 | 472 | % 4,8 |
| **Bidaia-agentzien, Operadoreen, erreserba- eta jarduera-zerbitzuen jarduerak** | **170** | **% 10,4** | **346** | **% 3,5** |
| **Guztira** | **1.630 establezimendu** | **% 100,0** | **9.812 lanpostu** | **% 100,0** |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*

Oro har, aisialdi turistiko eta gastronomia sektoreak (1.630 establezimendu) 9.812 lanpostu ditu 2024an, alegia, hiriko enpleguaren % 9,7. Hala bada, txikizkako merkataritzaren zifrak gainditu ditu.

Emakumeek ordezkaritza orekatua dute sektore horretako enpleguan (% 52,7)[55], eta feminizatuagoa bidaia-agentzien, operadoreen eta konbentzio / azoken antolaketa jardueren (% 76,5) eta ostatu zerbitzuen (% 59,6) esparruan. Jatetxeen kasuan, kontuan izanda ordezkaritza orekatua zela 2024an, murriztu egin da konparatiboki (% 49,5)[56].

[55] *Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazioak 2024.*
[56] Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ordezkaritza orekatua izango da sexu biak gutxienez % 40an ordezkatuta daudenean.

# 02

## Ezagutza-zerbitzu intentsiboak (EZI)

## 2.5

EZIen kontzeptuak —ingelesez, KIBS (Knowledge Intensive Business Services)— ezagutza sortu, metatu eta hedatzean oinarritzen den negozio-eredua duten enpresa eta entitateei egiten die erreferentzia.

EZIek ezagutza-zerbitzu intentsiboak eskaintzen dizkiete beste enpresa batzuetako produkzio- eta merkataritza-prozesuei. Horien negozio-ereduaren ardatza ezagutza espezializatu aditua eta hornitzailearen eta bezeroaren arteko elkarreraginaren garrantzia da, eskainitako zerbitzuaren edukia definitzerakoan. EZIak, gainera, ezagutza eskuratzeko, hura negozio-modu gisa erabiltzeko eta produkzio-ehunean zabaltzeko gaitasuna duten nodoak dira. Horrela, EZIak “berrikuntza-zubiak” dira, ezagutza lehia-errendimendu bihurtzeko funtsezko funtzio estrategikoa betetzen dutelako[57].

Eragile hauek ezagutzan intentsiboak diren eta beste enpresa batzuen ekoizpen- eta merkataritza-prozesuak hobetzea helburu duten zerbitzuak eskaintzen dituzte EZI-Enpresak deitzen dira, eta hirian 4.034 establezimendu dituzte guztira—, baita pertsonentzat zuzendutako hezkuntza- (E) eta osasun-zerbitzuak (S) ere —EZI-Pertsonak edo SEPES; 2.338 establezimendu dituzte hiriburuan—.

2024an, Donostiak EZIen 6.372 establezimendu ditu guztira. BPG nominalaren 4.487 milioi euro inguruko bolumena sortu dute, hots, udal BPG nominalaren erdia (% 48).

**Ezagutza-zerbitzu intentsiboen banaketa-eskema eta ekarpena BPG nominalari, enpleguari eta establezimenduei dagokienez. 2024**

**EZAGUTZA-ZERBITZU INTENTSIBOAK**

- **Enpresak-EZI**
  - **EZI-P** (EJSN 69 eta 70)
  - **EZI-T** (EJSN 62, 71 eta 72)
  - **EZI-S** (EJSN 73 eta 74)
- **Pertsonak - SEPES**
  - **Hezkuntza** (H) (EJSN 85)
  - **Osasuna** (O) (EJSN 86)

**Ekarpena hauei dagokienez:**

| BPG | LANPOSTUAK | ESTABLEZIMENDUAK |
|---|---|---|
| Ezagutza-zerbitzu intentsiboak, guztira: **4.487 M€ (% 48,0)** | Ezagutza-zerbitzu intentsiboak, guztira: **35.556 (% 35,1)** | Ezagutza-zerbitzu intentsiboak, guztira: **6.372 (% 35,5)** |
| **EZI-E 2.062 M € (% 22,1)** | **EZI-E 14.146 (% 13,9)** | **EZI-E 4.034 (% 22,5)** |
| **SEPES 2.425 M € (% 25,9)** | **SEPES 21.410 (% 21,1)** | **SEPES 2.338 (% 13,0)** |

[57] *Iturria: Txostena: “Donostiako Ezagutza Zerbitzu Intensiboen Lehiakortasun Abantailak eta Erronkak”. Donostia Sustapena eta Orkestra.*

## EZIen enpleguaren hazkundea tipologiaren arabera: EZI-Enpresak eta SEPESak.

EZI-Enpresak delakoen enpleguak gora egin du 2023tik 2024ra bitartean, hiriaren hirugarren sektoreko enpleguaren antzeko terminoetan (+% 2,6) eta joan den 2022-2023an baino erritmo arinagoan (+% 5,1).

Bestalde, SEPES izenekoen kasuan (21.410 lanpostu guztira 2024an), hazkunde-erritmoa (% 2,0) zertxobait txikiagoa da EZI-Enpresak delakoena baino, aurreko urtekaren antzekoa. SEPESen esparruan, tipologiaren arabera, hezkuntza-zerbitzuek (9.608 lanpostu) izan dute joera onena (+% 2,9), eta osasun-arloko zerbitzuek (11.802 lanpostu), berriz, % 1,2 egin dute gora enpleguan.

Hala, EZIetako enplegua % 2,2 hazi da 2023tik 2024ra. Hala ere, enpleguaren hazkunde-erritmoa txikiagoa izan da BPG nominalean erregistratutakoarekin alderatuta: EZIen multzoak % 4,3 egin du gora, eta bereziki EZI-Enpresek % 4,8 egin dute gora.

**Ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enpleguaren bilakaera Donostian. 2023-2024**




*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2024ko urtarrilaren 1a.*

Begirada historikoa azken hamarkada honetara zabalduz, EZIen enpleguaren hazkundea oso nabarmena da Gipuzkoako hiriburuan. Horrela, SEPES zerbitzuen enpleguaren hazkundea % 22,5ekoa da eta SEIC-Enpresen kasuan % 31raino heldu da. Azken 10 urte hauetan, EZI guztiak batera 7.300 lanpostu berri inguru sortzeko gai izan dira: 3.354 lanpostu garbi EZI-Enpresek eta 3.937 lanpostu garbi SEPES zerbitzuek.

Urteko batez besteko hazkunde-tasa konposatua (UHTK) kontuan hartuta, azken hamarkada honetako enpleguaren hazkundea % 2,74koa da EZI-Enpresen kasuan, eta % 2,05ekoa EZI-Pertsonen kasuan.

**EZIen enpleguaren bilakaera azken hamarkadan (zenb. eta UHTK). 2014-2024**

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. Urtarrilaren 1a.*

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | UHTK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EZI-Enpresak** | 10.792 | 10.913 | 11.232 | 11.898 | 12.329 | 12.653 | 12.903 | z.g. | 13.117 | 13.790 | 14.146 | **+% 2,74** |
| **EZI-Pertsonak** | 17.473 | 18.138 | 18.158 | 19.223 | 20.622 | 19.523 | 19.926 | z.g. | 20.997 | 20.997 | 21.410 | **+% 2,05** |

[58] Urteko hazkunde-tasa konposatua (UHTK).

# 02

Modu berean, EZI-Enpresak delakoen artean, hamar urte hauetan enpleguak ez du bilakaera bera izan tipologia guztietan. Izan ere, EZI-Enpresetako enpleguaren hazkundea batez ere zerbitzu teknologikoetan (EZI-T) gertatu da; zehazki, EJSN 62 jardueran (Programazioa eta aholkularitza informatikoa), % 71 inguru hazi baita, eta EJSN 72 jardueran (Ikerketa eta garapena).

Hala, 2024an, hiriko ikerketa eta garapen jarduerako enpleguak (2.707 lanpostu) lehen aldiz gainditu du jarduera juridikoetan eta kontabilitatekoetan sortutako enplegu-bolumena (2.680 lanpostu).

Gipuzkoako hiriburuak ageriko espezializazioa du ikerketa eta garapenaren esparruan, hots, EJSN 72 jardueran. Adar horretako enpleguak % 54,3ko hazkunde metatua izan du 2014tik, eta 2024an Donostiako enplegu osoaren % 2,7 izatera heldu da. Proportzio hori ez dator bat inguruko beste hiriburu batzuetan erregistratutakoarekin; hain zuzen, jarduera-adar horren pisua % 0,7koa da Gasteizen eta % 0,3koa Bilbon[59].

Halaber, EJSN 70 jarduera (Egoitza nagusietako jarduerak eta aholkularitza), zeina EZI-P edo zerbitzu profesionalen barnean sartzen da, nabarmen hazi da 2014tik (% 55,1). Bestalde, EJSN 69 jarduerak (Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak), gainerako EZI-Enpresak adarrek ez bezala, enplegu pixka bat galdu du. 2014an EZI-Enpresen 4 lanpostutik 1 adar horretakoa zen.

Beraz, EZIek enplegu kualifikatuaren eta balio erantsi handikoaren funtsezko ardatz gisa finkatzen jarraitzen dute hirian. Aldi berean, gorakada horrekin batera, zerbitzu operatiboei lotutako enpleguak egiturazko garrantzia du; zerbitzu horiek funtsezkoak dira tokiko ehun ekonomikoan. Izan ere, 2024an, hiriko enpleguaren erdia baino gehiago (% 56) zerbitzu horietakoa da, eta % 35 baino zertxobait gehiago, EZIetakoa.

**EZI-Enpresak zerbitzuen enpleguaren bilakaera tipologiaren arabera azken hamarkadan. 2014-2024**

| | 2014 | 2024 | Bilakaera 2014-2024 |
|---|---|---|---|
| **Zerbitzu profesionalak (EZI-P)** | **3.722** | **4.271** | **+% 14,8** |
| EJSN 69 (Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak) | 2.696 | 2.680 | -% 0,6 |
| EJSN 70 (Egoitza nagusietako jarduerak eta aholkularitza) | 1.026 | 1.591 | +% 55,1 |
| **Zerbitzu teknologikoak (EZI-T)** | **5.261** | **7.805** | **+% 48,4** |
| EJSN 62 (Programazioa eta aholkularitza informatikoa) | 1.516 | 2.588 | +% 70,7 |
| EJSN 71 (Arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakuntza eta analisi teknikoak) | 1.991 | 2.510 | +% 26,1 |
| EJSN 72 (Ikerketa eta garapena) | 1.754 | 2.707 | +% 54,3 |
| **Sorkuntzako zerbitzuak (EZI-S)** | **1.809** | **2.070** | **+% 14,4** |
| EJSN 73 (Publizitatea eta merkatu-azterketak) | 924 | 1.017 | +% 10,1 |
| EJSN 74 (Bestelako jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak) | 885 | 1.053 | +% 19,0 |
| **EZI-Enpresak, guztira** | **10.792** | **14.146** | **+% 31,1** |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. Urtarrilaren 1a.*

[59] *Iturria: Enpresa Zerbitzuen Lehiakortasun Abantailak eta Erronkak. Bilbo eta Gasteizko 2023ko datuak.*

## Jarduera ekintzailea

## 2.6

### Norabide positiboa ekintzailetza-dinamikan.

Donostiako jarduera ekintzailearen tasak (JET) historia hurbileko mailarik altuena lortu du 2024an, alegia, % 7,9[60]. 2023an erregistratutako maximoa (% 7,0) baino ia ehuneko bat gehiago da hori. Datu horrek indartu egiten du hiriak 2018tik duen hazkunde iraunkorreko joera.

Konparazioa eginez gero, Donostia estatuko ekintzailetza-polo nagusien ildo beretik doa, hala nola Madrilgo Erkidegoa (% 9), Katalunia (% 8,5) eta Valentziako Erkidegoa (% 8,0), nahiz eta oraindik Europar Batasuneko batezbestekoaren (% 10) azpitik egon[61].

2024an, 925 alta erregistratu dira langile autonomoen araubide berezian eta 1.419 enpresa eratu dira[62]; tokiko ekosistema ekintzailearen dinamismoa berresten du horrek.

Jarduera ekintzailearen tasaren (JET) bilakaera. 2021-2024




*Iturria: Donostia Sustapena. 2024.*




[60]*Iturria: Donostia Sustapena. 2024.*
[61]*Iturria: Global Entrepreneurship Monitor. Txostena. GEM Espainia. 2024-2025.*
[62]*Iturria: Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika. Eustat.*

# 03 Zientzia eta berrikuntzaren hiria

Donostia zientzia eta berrikuntzako gune gisa finkatu da, eta 2024an 365,4 milioi euroko inbertsio errekorra lortu du I+Gn, alegia, % 12,3ko hazkundea urtebetean.

Gainera, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak laugarrenez aitortu du hiriaren posizionamendua 2024an.[63]

Ezagutzan, zientzian eta berrikuntzan oinarritutako hiri-garapeneko estrategiari esker izan da posible lorpen hori. Estrategia azken hiru hamarkadetan izan da abian, eta, horri esker, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareari lotutako 30 zentro sortu eta finkatu dira hirian.

EAE "pocket of excellence" moduan ageri da Regional Innovation Scoreboard 2025 markagailuan[64]; izan ere, "moderate innovator" gisa jo den herrialdearen[65] testuinguruan, "strong innovator" da gure eskualdea. Hau da, EAE berrikuntzaren liderretako bat da estatu mailan, eta Donostia EAEren berrikuntzako lidergoaren funtsezko oinarria da.

## I+G

## 3.1

### I+Gko jardueretan inbertitzea

### 3.1.1

**Donostiak I+Gko inbertsioan izan duen hazkunde handiko ibilbidea finkatu da; bi digituko urte arteko hazkundeari eutsi dio azken urteetan. Horrela, Gipuzkoako hiriburuak Europako ekonomia nagusiek baino hazkunde-erritmo handiagoa izaten jarraitzen du.**

Donostian, 365,4 milioi euroko inbertsioa egin da ikerketa- eta garapen-jardueretan (I+G). Orain arteko maximoa da hori, eta aurreko ekitaldietan ikusitako goranzko joera berresten du.

Hala, 2022tik 2023ra bitartean I+Gko inbertsioan izandako gorakadari dagokionez, urte arteko tasa % 12,3koa izan da —EAEkoaren antzekoa—, eta egungo I+Gko inbertsio-maila duela lau urtekoa baino % 50 handiagoa da.

Konparatiboki, Donostian I+G arloan 2022tik 2023ra bitartean izandako hazkunde agerikoa estatu mailakoa (+% 15,8) baino zertxobait apalagoa izan bada ere, modu nabarian gainditzen du Europar Batasuneko ekonomia nagusien erritmoa: Austria (+% 9,4), Alemania (+% 7,0), Frantzia (+% 4,7) eta Italia (+% 2,4).

Europako testuinguruan, bereziki azpimarratzekoa da ekialdeko herrialdeek izandako hazkunde handia, herrialde horiek I+Gko inbertsio-maila askoz ere baxuagoak baitituzte. Errumaniaren (+% 28,5) eta Poloniaren (+% 22,6) kasuan, urte arteko tasek modu agerian gainditzen dute % 20a.

I+Gko inbertsioaren bilakaera Donostian. 2017-2023 (mila €)




*Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

[63]"Zientzia- eta berrikuntza-hiria" 2010., 2014., 2018. eta 2024. urteetan.
[64]Regional Innovation Scoreboard 2025.
[65]Espainia.

## I+Gko inbertsio-maila handia, BPG eta *per capita* terminoetan.

Azterketa I+Gko inbertsioak BPG nominalarekiko duen pisu erlatiboan zentratuz gero, Donostia buru da % 3,7ko ratioarekin; Gipuzkoako lurralde historikoaren (% 2,6) eta Euskal Autonomia Erkidego osoaren (% 2,1) batezbestekoaren oso gainetik dago. Proportzio horrek I+G arloan aurreratuen dauden Europako ekonomien mailan kokatzen du Gipuzkoako hiriburua, hala nola Suedia (% 3,6), Belgika (% 3,3), Austria (% 3,3) edo Alemania (% 3,1), baita hainbat hiriren mailan ere, adibidez, Helsinki (% 3,8) eta Grenoble (% 3).[66]

BPG nominalaren gaineko I+Gko inbertsioa, Donostia, Gipuzkoa, EAE eta Europan. 2023




*Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. COTEC txostena. 2024.*

[66]*Iturria: Ikerketa Ikerketa eta Garapena (I+G) Eurostat, 2021. urtea, arauen arabera (NUTS2).*

# 03

Bestalde, biztanle bakoitzeko I+Gko inbertsioan 1.936 euroko batez besteko ratioa lortu da 2023an, hau da, aurreko urtean baino % 12,3 gehiago. Zifra horrek bikoiztu egiten du EAEko batezbestekoa (930 €/bizt.), eta nabarmen gainditzen ditu estatuan biztanleko inbertsio handiena duten autonomia-erkidegoak: Madrilgo Erkidegoa (879 €/bizt.), Katalunia (679 €/bizt.) eta Nafarroa (665 €/bizt.).

**Biztanle bakoitzeko I+Gko inbertsioa Donostian eta autonomia-erkidegoetan. 2023 (€ biztanleko)**




*Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat eta I+G jarduerei buruzko estatistika 2023. Estatistikako Institutu Nazionala (INE). 2023.*

## I+Gko funtsen jatorria

Donostiako I+Gko inbertsioaren tokiko konfigurazioak alde nabarmenak ditu Euskal Autonomia Erkidego osoarekin (EAE) erkatuta. EAEn sektore pribatua da nagusi I+Gren finantzaketan, guztizkoaren % 55,5ekin; Donostian, aldiz, sektore pribatuaren pisua heren bat baino txikiagoa da, eta sektore publikoa da nagusi, % 50 inguruko partaidetzarekin.

Neurri handi batean, hiriburuak hirugarren sektoreko profila duelako da hori; izan ere, hiriburuaren produkzio-egitura desberdina da, bai lurralde osoarenetik, bai EAEko batezbestekotik, industria-sektoreak presentzia mugatua baitu. Horrela, errealitate hori argi eta garbi islatzen da enpleguaren datuetan: Donostian, industriako enplegua guztizkoaren % 4,3 baino ez da, eta EAEn, berriz, % 19,5era iristen da.

**I+Gko inbertsioaren banaketa, funtsen jatorriaren arabera[67]. 2023. Donostia vs. EAE**

**Donostia**




**EAE**




*Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

[67] Atzerritik datozen funtsak: Europar Batasunaren (erkidegoko programak), agentzien eta nazioarteko beste erakunde batzuen eta atzerriko herrialdeen dirulaguntzak. Erakunde pribatuetatik datozen funtsak: I+G egiten duten enpresen funts propioak, gehi enpresa pribatu, publiko eta ikerketa zentroetatik datorren finantzaketa.

## I+Gko inbertsioaren banaketa, diziplina zientifikoen arabera.

Donostian, I+Gko inbertsioa ingeniaritzaren esparruan kontzentratzen da batez ere; inbertsio osoaren erdia inguru da. Ondoren, zientzia zehatzak (% 20,9) eta zientzia medikoak (% 17,4) daude.

Banaketa hori ia egonkor mantendu da 2022tik, eta EAE osokoa baino profil dibertsifikatuagoa du, inbertsioaren % 69 baino gehiago ingeniaritzakoa baita EAEn. Errealitate hori, hein batean, hiriko biozientzien guneari eta ingeniaritzarekin eta osasunarekin lotutako ezagutza-ekosistemari esker da, haren kategorizazioak zeharkako izaera baitu.

Alderaketa eginda, Donostiak inbertsio erlatibo handiagoa egiten du zientzia mediko eta zehatzetan —oro har, autonomia-erkidegoko batezbestekoa baino ehuneko 17 puntu baino gehiagoko aldea dago—, bai eta gizarte-zientzietan ere —EAE osoaren aldean ehuneko 4,5 puntuko diferentzial positiboa du—.

I+Gko inbertsioaren banaketa, arlo edo diziplina zientifikoaren arabera. 2023. Donostia vs. EAE

**Donostia**




**EAE**




*Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

## I+Gko enplegua

3.1.2

**I+Gko enpleguak goranzko joeran jarraitzen du (+% 8), eta nabarmentzekoa da bioteknologiako enpleguak izan duen gorakada handia (+% 36).**

2023an, I+G jarduerekin lotutako enplegua 6.800 pertsona ingurukoa da Donostian. Zifra horrek erakusten du dinamismo handia izan dela esparru horretan azken urteetan, inbertsioaren hazkunde jarraituaren ildotik. % 8ko hazkundea egon da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2021etik 2022ra izandako % 5,7ko igoera gainditu da.

Bestalde, dedikazio osoko lanpostu baliokide (DOB) diren 4.648 enplegu daude; horiek ere aurreko urtean (% 5,4) baino hazkunde handiagoa (% 8,2) izan dute.

# 03

**Donostian I+Gn diharduten pertsonen kopuruaren bilakaera. 2021-2023**




*Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

2023an, Gipuzkoako hiriburuak % 19 inguruko ordezkaritza izan zuen EAEko I+Gko enpleguan —dedikazio osoko lanpostuetan (DOB) neurtuta—. Azkenik, azpimarratzekoa da I+Gko enplegua Donostiako biztanleria aktiboaren % 5,2 dela. Hala bada, EAE osoko batezbestekoa (% 2,2) bikoizten du[68], eta Gipuzkoakoa (% 2,8) ere gainditzen du.

**I+Gko DOB enpleguaren ekarpena Donostian, EAErekiko. 2023**




*Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

## Genero-ordezkaritza orekatua.

Hiriko I+Gko enpleguan, emakumeen ordezkaritza orekatua da[69] (% 46,6ko batezbestekoa), eta banaketa ere parekidea da enplegu-profilen artean: % 61 laguntzaileen artean, % 54,6 teknikarien kasuan eta % 42,6 ikertzaileen artean.

Ikerketa-esparruen arabera, emakumeen presentzia txikiagoa da ingeniaritzaren eremuan: %36,3koa da. Zifra hori ez dator bat gainerako diziplinetan gertatzen denarekin, non emakumeen partaidetza %45etik gorakoa den. Zientzia medikoen esparruan zehazki, emakumezkoen ordezkaritza %59ra iristen da.

[68] *Iturria: Eustaten I+Gko jardueren inkesta, eta Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. 2023.*

[69] Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, ordezkaritza orekatua izango da sexu biak gutxienez % 40an ordezkatuta daudenean.

**Emakumeen ordezkaritza I+Gn diharduten langileen artean. 2023**

**I+Gko pertsonen %**

**% 46,6 Emakumeen ordezkaritza**

**Emakumeen ordezkaritza, enplegu-profilen arabera (%)**




**Emakumeen ordezkaritza, diziplina zientifikoaren arabera (DOB langileak)**




*Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

## Enplegu teknologikoa

## 3.2

**Donostia: estatuko liderra I+Gko enplegu teknologikoan.**

Donostia I+Gko enplegu teknologiko handiena duen probintzia-hiriburua da 2024an[70]. Hala bada, haren pisua % 2,33koa da, beraz, Bartzelona, Madril eta Bilbokoa baino handiagoa, baita Donostia berak 2019an zuen pisua (% 1,75)[71] baino handiagoa ere.

Hiriaren teknologia-arloarekin lotutako enplegu guztiei begirada zabaltzen badiegu, eremu honi lotutako 8.843 lanpostu daude guztira hirian, hots, enpleguaren % 7,2[72].

Enplegu-profil horrek, % 27,1etik gorako[73] hazkundea izan du azken bost urteetan; horrek, 2019. urtearekin alderatuta, ehuneko 1,4 puntu handitu du enplegu teknologikoaren pisu erlatiboa. Hazkunde hori koherentea da eta bat dator hiriak ezagutzan, zientzian eta berrikuntzan oinarritutako hazkunde-ereduaren alde egindako apustuarekin[74].

Izan ere, enpleguari dagokionez 2019-2024 aldian hiri osoan izan zen hazkunde positiboak (+% 5,8), neurri handi batean, enplegu teknologikoaren hazkundearekin (% 27,1) du zerikusia; enplegu ez-teknologikoarena (% 4,1) edo beste hiri batzuetako enplegu teknologikoarena (+% 22,75) baino askoz handiagoa da[75].

[70] Enplegu teknologikoa Eurostatek High Tech Statistics-etarako erabiltzen dituen 13 jarduera-adarrekin dago lotuta.
[71] Espainiako Enplegu Teknologikoaren Mapa 2025 COTEC Fundazioa.
[72] *Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazioak 2024.*
[73] *Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazioak 2024.*
[74] EJSN Farmazia-produktuen fabrikazioa (NACE 21); Ordenagailuen, produktu elektronikoen eta optikoen fabrikazioa (NACE 26); Aireontzien eta espazio-ontzien fabrikazioa (NACE 30.3 azpikategoria); Produktu kimikoen fabrikazioa (farmazia-produktuak izan ezik) (NACE 20); Beste inon jasotzen ez den makineriaren eta ekipamenduen fabrikazioa (NACE 28); Ibilgailu motordunen, atoien eta erdiatoien fabrikazioa (NACE 29); Beste garraio-material batzuen fabrikazioa (aireontziak eta itsasontziak izan ezik) (NACE 30.2, 30.4, etab.); Ekipamendu elektrikoen fabrikazioa (NACE 27); Informazioaren teknologien zerbitzuak (IKT) (NACE 62, 63.1); Telekomunikazio-zerbitzuak (NACE 61); Ikerketa eta garapena (I+G) (NACE 72); Aholkularitza tekniko eta zientifikoko zerbitzuak – zati bat (NACE 71); Goi-mailako hezkuntzako zerbitzuak (NACE 85.4).
[75] *Iturria: COTEC Fundazioa.*

# 03

"Ikerketa eta garapena" eta "Programazioa, aholkularitza eta beste jarduera batzuk" jarduera-adarrek sortu dute enplegu gehien Donostian, eta hori bat dator ikerketa-zentroek eta EZI (ezagutza-zerbitzu intentsiboak) enpresek hirian duten presentzia handiarekin.

Tokiko errealitate hori lurralde-dinamika zabalago batean kokatzen da, non Gipuzkoa enplegu teknologikoaren ranking probintzialaren liderra den estatu osoan; % 11,5eko ordezkaritza du enplegu mota honek, lurraldearen industria-profil berritzaileari lotua. 27-EBko batezbestekoa gainditzen du, eta erreferentziazko Europako ekonomiekin (Suedia eta Finlandia) aldera daiteke Gipuzkoaren egoera.

Autonomia-erkidegoei erreparatuta, 2024an Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren postuan dago enplegu teknologikoaren intentsitateari dagokionez (% 9,2), Madrilgo Erkidegoaren (% 10,6) eta Nafarroako Foru Komunitatearen (% 10,1) atzetik.

**Enplegu teknologikoaren eta I+G enplegu teknologikoaren pisuaren bilakaera. 2019-2024**

**Enplegu teknologikoaren %**




**Afiliazio teknologikoen kop.**




**I+G enplegu teknologikoaren %**




** ehuneko puntu*
*Iturria: Enplegu teknologikoaren mapa. 2025. COTEC Berrikuntzarako Fundazioa.*

## Hiria arian-arian ari da espezializatzen biozientzien arloan.

Azken 5 urteetan, hiria hazkunde esponentziala izaten ari da biozientzien esparruan. Arlo horrek hainbat esparru zientifiko biltzen ditu; esaterako, biologia, kimika, fisika, teknologia medikoa, farmazia, informatika, nutrizio-zientziak eta ingurumen-teknologia[76].

Donostiak ekosistema biozientifiko dinamiko eta anitza du; honek 100 entitate baino gehiago biltzen ditu. Enpresa-ehuna identifikatutako entitateen % 52,8 da, eta horietatik 40 start-upak dira (7 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten enpresak).

Gainera, hiriak I+Gko hainbat enpresa-unitate ditu, bai eta I+Gko enpresa-jarduerak egiten dituzten enpresen aldi baterako elkarteak ere. Orobat, ehuna ikerketa-jardueretan puntakoak diren hainbat entitatek osatzen dute; hori dela eta, bikaintasuna nabari da hiriko oinarrizko ikerketan eta merkaturako iritsieran.

**Biozientziako entitateen banaketa Donostian**

*Iturria: Donostiako Biozientzien sektoreko I+G+b ekosistemaren azterketa. 2025.*

| | | |
|---|---|---|
| **106 Entitate biozientifiko** | **75** | Enpresa (40 start-up) |
| | **24** | Fundazio, ikerketa-zentro, institutu teknologiko eta antzeko entitate |
| | **2** | Elkarte, kluster eta enpresa-erakunde |
| | **2** | Arrisku-kapitaleko funts (38 inbertsio-ibilgailu) |
| | **3** | Bestelako ezagutza-entitate |

Bioteknologia hiriko punta-puntako azpisektoreetako bat da arlo horretan, eta 2023an 62,2 milioi euroko inbertsioa egin zen bertan; beraz, urte arteko % 29,5eko hazkunde nabarmena izan da, aurreko urtekoa (+% 8,6) baino askoz handiagoa. 2017tik, hazkunde metatua % 116,1ekoa izan da.

**Bioteknologiako inbertsioaren bilakaera Donostian. 2017-2023 (mila €)**

*Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2023.*




[76]Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundearen araberako definizioa.

# 03

Bilakaera positibo horrek hiriko bizitzazientzien finkapena islatzen du, bai eta horien pisu erlatibo hazkorra ere; hala, bioteknologia tokiko I+Gko inbertsio osoaren % 17 da, alegia, ehuneko bi igo da 2022arekin konparatuta.

Gainera, lurraldeka, ingurune hurbileneko bioteknologiako I+Gko inbertsioaren zati handi bat biltzen du Donostiak: Gipuzkoan inbertitutako guztizkoaren % 91 da (aurreko urtean baino +2 e.p.), eta EAEn bioteknologian egindako inbertsioaren herena baino zertxobait gehiago.

**Donostiako bioteknologiako I+G inbertsioak Gipuzkoako eta EAEko bioteknologiako I+Gn egindako ekarpena. 2023**

*Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*




Sektorearen hazkundea enplegu-zifretan ere islatu da. Hala, 2023an, 1.065 langile zeuden hirian eremu horretan (688 langile, DOB lanpostuak zenbatuz gero), alegia, I+G jardueretan diharduten pertsona guztien % 16 inguru (% 15, DOB lanpostuak kontuan hartuta).

**Donostian bioteknologiako I+Gn diharduten pertsonen kopuruaren bilakaera. 2021-2023**

*Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*




Lurraldearen ikuspegitik, hiriak EAEko bioteknologiaren eremuari egiten dion ekarpena bereziki garrantzitsua da, bai enpleguari (DOB) dagokionez, bai inbertsioari dagokionez, eta bi kasuetan % 34 ingurukoa da. Proportzio hori % 91ra heltzen da Gipuzkoako guztizkoa kontuan izanez gero.

**Bioteknologiako DOB enpleguaren ekarpena Donostian EAErekiko. 2023 (%)**

*Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

**% 33,9**

Bioteknologiako enpleguaren pisua Donostian, EAEko guztizkoarekiko

Gainera, enpleguari dagokionez, 2022tik 2023ra bitarte izandako bilakaera apartekoa izan da. Enpleguan % 36 inguruko hazkundea egon da urte bakar batean, % 25ekoa dedikazio osoko lanpostuetan (DOB) neurtuz gero. Hazkunde nabarmen horrek gainditu egiten du bioteknologiako inbertsioaren esparruan aldi berean izandakoa (+% 29,5).

Generoari erreparatuta, nabarmentzekoa da emakumeek presentzia handia dutela bioteknologiari lotutako enpleguan; guztizkoaren % 58,3 dira. Lanbide-profilaren arabera, arlo horretako 3 teknikaritatik 2 emakumeak dira, eta % 57 inguru emakumezko ikertzaileak.

**Emakumeen ordezkaritza I+Gn diharduten langileen artean 2023 (%)**

**Bioteknologiako I+Gko pertsonen %**

**% 58,3** **Emakumeen ordezkaritza**

**Emakumeen ordezkaritza, enplegu-profilen arabera (%)**




*Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2023ko abenduaren 31.*

Fakturazioari helduta, Donostiako biozientzien sektoreak bilakaera positiboa eta gero eta finkapen estrategiko handiagoa du tokiko eta probintziako testuinguru ekonomikoan. 2020an, 79,1 milioi eurokoa zen, eta 2022an, berriz, 162 milioi eurokoa[77]. Hiru urtean % 105 inguruko hazkunde metatua izan du (% 43ko UHTK[78]).

Azken batean, zifrek erakusten dutenez, sektoreak hazkunde esponentziala izan du azken bost urteetan, eta, aurreikuspenen arabera, gorantz jarraituko du. Hazkundea ez da kasualitatez gertatu; hiriak azken urteotan sektore horren alde egin duen apustu iraunkorrari esker izan da. Azpiegiturak eta enpresa-proiektuak bultzatu dira eta sare berritzaileari babesa eman zaio, eta, hala, tokiko ekosistematik, 801 patente —% 69 zentro teknologikoek gidatu dituzte— eta 2.096 argitalpen zientifiko sortu dira esparru akademikoan —horien onespen-ratioa % 41 ingurukoa izan da—. Horrek erakusten du ezagutza irtenbide aplikatu bihurtu ahal dela[79].

[77] *Iturria: Orbis.*
[78] Urteko hazkunde-tasa konposatua (UHTK).
[79] *Iturria: Orbis.*

# 03

## Teknologiaren eta I+Gren ezagutza-sarea

3.3

Donostiako I+Gko eragileen sarearen mapa

Hiriak teknologiaren eta I+Gren esparruan duen zentraltasunaren oinarria I+Gko eragileen sarea da (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide diren 30 entitatek osatzen dute guztira), bai eta EZIen enpresa-sare handia ere (6.372 establezimendu).




| | |
|---|---|
| **Zientzia, teknologia eta berrikuntza zabaltzeko eragileak** | 1_GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA<br>2_EUSKO IKASKUNTZA<br>3_ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA |
| **Eskaintza/Eskariaren bitartekaritza-eragileak** | 1_GAIA EZAGUTZAREN ETA TEKNOLOGIAREN INDUSTRIEN ELKARTEA<br>2_EIT MANUFACTURING WEST SL<br>3_EUSKADIKO MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA<br>4_MAKINA-ERREMINTAREN IKERKETA FUNDAZIOA<br>5_UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA UZEI |
| **Foku anitzeko teknologia-zentroak** | 1_CIDETEC FUNDAZIOA<br>2_VICOMTECH IKUSIZKO ELKARRERAGINERAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIEN ZENTROA FUNDAZIOA<br>3_CEIT ZENTRO TEKNOLOGIKOA ELKARTEA<br>4_TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA |
| **Unibertsitateen ikerketa-egiturak** | 1_NAFARROAKO UNIBERTSITATEA – TECNUN<br>2_BASQUE CULINARY CENTER HEZKUNTZA FUNDAZIOA |
| **Teknologia-zentro sektorialak** | 1_BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA |
| **Ikerketa kooperatiboko zentroak** | 1_CIC NANOCUNE ELKARTEA<br>2_BIOMATERIALETAKO IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTROA |
| **Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketarako zentroak** | 1_BCBL BASQUE CENTER ON COGNITION BRAIN AND LANGUACE ELKARTEA<br>2_DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER<br>3_MPC IKERKETA ELKARTEA – MATERIALS PHYSICS CENTER<br>4_BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING, POLYMAT FUNDAZIOA |
| **Enpresetako I+G unitateak** | 1_EKOTRADE RECUPERACIONES AMBIENTALES SL<br>2_MULTIVERSE COMPUTING RESEARCH SL<br>3_HISPAVISTA LABS AIE<br>4_INSTITUTO IBERMATICA DE INNOVACIÓN SL<br>5_IKOR TECHNOLOGY CENTRE SL<br>6_BCV INNOVACIÓN Y DESARROLLO SL |
| **Osasun arloko I+Gko erakundea** | 1_CITA-ALZHEIMER FUNDAZIOA<br>2_MATIA INSTITUTU GERONTOLOGIKOA FUNDAZIOA |
| **Ikerketa sanitarioko zentroak** | 1_BIOGIPUZKOA OSASUN IKERKETAKO INSTITUTUA ELKARTE |

*Iturria: Donostia Sustapenak egina.*

Hiriak oinarri sendoak ditu orainari eta etorkizunari aurre egiteko, eta oinarri horietatik garapen-eredua indartzen eta bultzatzen jarraituko du. Orainerako, proiektu estrategikoak ditu, eta datorren urteetarako, eremu hauetan proiektatutako inbertsioak:

- **Berrikuntza, talentua eta ekintzailetza:** EKINN Donostia nodoa eta Talent House eta etorkizuneko GOE (Gastronomy Open Ecosystem) proiektua.
- **Biozientzien gunea:** “zientziaren industrializaziora” bideratutako mundu mailako enpresa eta erakunde liderrak, hala nola Viralgen, Vivebiotech, Biotech Foods edo Columbus Biotech Hub gune berria; nabarmentzekoa da, halaber, Osakidetzak Onkologikoaren inguruan duen protoiterapia-zentro berria.
- **Adimen Artifiziala (IA):** City Science Lab Gipuzkoa eta antzeko proiektuen bidez, Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundearekin eta estatuan aitzindaria den EHUko IA graduarekin elkarlanean.
- **Milia kuantikoa:** IBMren munduko seigarren ordenagailu kuantikoa ((IBMren sareko ordenagailu kuantiko indartsuena izanik) Donostiara ekartzearen erabakia (IBM Euskadi Quantum Computational Center – IKERBASQUE eraikina), Donostia International Physics Centerren eraikin berria, CIC NanoGUNEren Quantum Tower delakoa, edo Multiverse Computing enpresaren softwarea, kuantikan oinarritua.
- **Elektromugikortasuna eta energia:** Eskuzaitzetako elektromugikortasunaren hub berria; bertan daude Mubil, CIDETEC, Tecnalia eta Vicomtech enpresen egoitzak eta Tecnaliarekin lotutako Europako hidrogeno laborategi aitzindaria.



# 03

**Donostiako egungo eta etorkizuneko teknologia eta I+G guneak**




* En construcción

**TALENTUA**
- TALENT HOUSE: Harrera plana
- FABRIKA

**GASTRONOMIA**
- GOE (Gastronomy Open Ecosystem)*
- GASTRONOMIKA
- BCC (Basque Culinary Center)
- EKINN + Gastro

**PARKE TEKNOLOGIKOA ZABALTZEA ETA ESKUZAITZETA**

**BIOZIENTZIEN GUNEA**
- VIRALGEN
- VIVEBIOTECH
- BIOTECH FOODS
- COLUMBUS BIOTECH HUB*
- CENTRO

**EKINTZAILETZA**
- EKINN berrikuntza- eta ekintzailetza-nodoa

**ELEKTROMUGIKORTASUNA**
- EKINN berrikuntza- eta ekintzailetza-nodoa ELEKTROMUGIKORTA-SUNAREN HUBA (Mubil, CIDETEC, Tecnalia, Vicomtech)

**ENERGIA**
- HIDROGENOA (Tecnalia) Europako laborategi aitzindaria

**ADIMEN ARTIFIZIALA**
- MIT City Science Lab
- EHUko IA gradua aitzindaria estatuan
- “IAren eragin sozialari buruzko ikerketa” katedra (Donostia Sustapena-Tecnun)

**ZIENTZIAREN INDUSTRIALIZAZIOA**
- Biotech Foods
- Vivebiotech
- Viralgen

**INDUSTRIARI ZUZENDUTAKO ZERBITZU AURRERATUAK**
- ZUATZU, zerbitzu aurreratuen gunea

**MILIA KUANTIKOA**
- IBM munduko 6. ordenagailu kuantikoa * (IBM Euskadi Quantum Computational Center – IKERBASQUE eraikina)
- DIPC eraikin berria
- Multiverse Computing
- Basque Quantum
- Quantum TOWER CIC NanoGUNE

*Iturria: Donostia Sustapenak egina.*

# Talentua bultzatzea hirian

## 3.4

Teknologiako eta biozientzietako berrikuntzarako gune gisa mantentzeko eta finkatzeko, bai estatuan, bai nazioartean, hiriak bokazio berriak sustatu behar ditu gazteen artean, eta, aldi berean, talentu teknologiko eta zientifikoa erakarri behar du hurbileko ingurunetik nahiz atzerritik.

Esparru horretan, eta produkzio-ehunaren beharrak eta diziplina zientifiko-teknikoetako (STEM[80]) ikasleen bilakaera lerrokatzeko helburuarekin, arreta berezia jarriko dugu ikasturtez ikasturteko matrikulazioen bilakaeran, bai eta matrikulazio horien generoaren araberako banaketan ere, Donostian eskaintzen diren izaera zientifiko-teknologikoko lanbide-heziketako graduetan eta unibertsitate-titulazioetan.

Orokorrean, 2023-2024 ikasturtean STEM diziplinetan (lanbide-heziketako eta unibertsitateko graduetan) matrikulatutako hiriko ikasleak 7.264 dira guztira.



Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

### Lanbide-heziketako diziplina zientifiko-teknikoetako (STEM) ikasleak.

STEM adarretako lanbide-heziketako ikasleak 3.415 izan dira 2023-2024 ikasturtean; zehatz-mehatz, 286 oinarrizko lanbide-heziketan, 1.227 erdi-mailakoan eta 1.902 goi-mailakoan.

Oraindik ere gizonezkoak dira nagusi oinarrizko lanbide-heziketako STEM adarretan. Fabrikazio mekanikoan, garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanetan, eta elektrizitatea eta elektronikan, adibidez, gizonezko ikasleak guztizkoaren % 92 baino gehiago dira.

LHko erdi-mailako graduetan, generoaren araberako banaketa zertxobait orekatuagoa da; gizonak % 62 dira. Ostera, goi-mailako graduetan, gizonak % 70 ingurura iristen dira.

Aitzitik, nabarmentzekoa da zer-nolako protagonismoa duten emakumeek osasun-adarrean; izan ere, emakumeak % 67 dira erdi-mailako zikloetan eta % 84 goi-mailakoetan. Modu berean, presentzia orekatuagoa da arte grafikoetan, kimikan eta irudia eta soinuan.

[80]Akronimoa: Science, Technology, Engineering and Mathematics.

# 03

**Lanbide-heziketan matrikulatutako ikasleak. 2023-2024 ikasturtea**




*Iturria: Eskola-jardueraren estatistika. Eustat. 2023-2024.*

## Unibertsitate-graduetako diziplina zientifiko-teknikoetako (STEM) ikasleak.

Ikasturte honetan, STEM diziplinei lotutako unibertsitate-graduetan 3.849 ikasle daude guztira, eta neurri handi batean ingeniaritzetan kontzentratzen dira horiek (% 80 inguru). Aurreko ikasturtearen aldean ehuneko bi puntu inguru hazi den arren, emakumeek ingeniaritzetan duten presentzia % 27ra baino ez da heltzen gaur egun.

Adimen artifizialaren kasuan —bi titulazio berri jarri dira eta ia hirukoiztu egin da matrikulen kopurua—, emakumeak ikasleen heren bat baino ez dira.

Oro har, hiru gradutan bakarrik gainditzen dituzte emakumeek gizonak: kimika (% 58,3), ingeniaritza biomedikoa (% 56) eta industria diseinu eta produktu garapeneko ingeniaritza (% 55,9).

**Unibertsitateetan diziplina zientifiko-teknikoetako graduetan matrikulatutako ikasleak. 2023-2024 ikasturtea**




*Iturria: Unibertsitatearen estatistika. Eustat. 2023-2024.*

## Ekitaldi eta jarduera zientifiko-teknologikoa

## 3.5

Hiriak ezagutzan, zientzian eta berrikuntzan oinarritutako eredu baterantz izan duen bilakaerarekin batera, esparru horietan garatutako ekitaldiek protagonismo gero eta handiagoa dute hirian. Hala, 2024. urtean, zientzia, teknologia, jasangarritasuna eta osasuna ere presente egon dira MICE[81] eremuan.

Izan ere, urtean zehar egindako 188 ekitaldi profesionaletan 259.000 parte-hartzaile baino gehiago egon dira. Ekitaldi horietatik % 43 zientzia eta teknologia arlokoak izan dira, eta, horrela, hiria biltzar espezializatuetarako erreferente bihurtu da.

Testuinguru horretan, sektore bioteknologikoa protagonista nagusietako bat izan da. Europan topaketak egin dira, non eragile inbertitzaileak, start-upak eta enpresa handiak bildu baitira, osasunari eta industriari aplikatutako bioteknologiaren etorkizunari buruz hausnartzeko.

Era berean, eremu zientifikoan, fisika kuantikoan, nanoteknologian eta mikro fabrikazio aurreratuan espezializatutako foroak egin dira hirian, non nazioarteko adituek ikerketa eta garapen teknologikoko azken aurrerapenak partekatu baitituzte.

Bestalde, osasunaren eremuko topaketetan, adimen artifiziala eta digitalizazioa osasun-sistemak nola eraldatzen ari diren aztertu da. Ikuspegi horrek apustu bikoitza islatzen du: alde batetik, hiriak sektore biosanitarioarekin duen konpromisoa, eta, bestetik, erronka globalei heltzen dieten ekitaldiak erakartzeko duen gaitasuna.

[81] Meetings (bilerak); Incentives (pizgarriak); Conferences (biltzarrak edo konferentziak); Exhibitions/Events (erakusketak edo ekitaldiak).

# 04 Lurralde-begirada

Hiri osoaren ezaugarri demografiko eta sozioekonomikoei erreparatuz gero, Hiri Barometro honetan jada aztertu ditugun ezaugarriak, ñabardurak daude hiriko zonaldeen eta 17 auzoen artean.

Azken kapitulu honetan, lehenik eta behin, auzo bakoitzaren errealitate demografikoaren —biztanleria, zahartzea, migrazioa— eta errealitate sozioekonomikoaren —errenta, prestakuntza-maila, lan-merkatua eta etxebizitza— laburpena egingo dugu, mendebaldearen eta ekialdearen arteko trantsizio-ardatz argia erakusten duten adierazle-multzo batetik abiatuta.

Ondoren, azterketa espaziala egingo dugu enpresa-ikuspegitik, establezimendu-parkearen eta enpleguaren dimentsionamenduaren bidez, bai lurzoru urbanizatuan, bai hiriko jarduera-industrialdeetan.

## Auzoen profil demografikoa eta sozioekonomikoa

## 4.1

Auzo bakoitzaren errealitatearen ikuspegi sintetikoa emateko helburuarekin, Hiri Barometroan, demografiari, prestakuntza-mailari, lan-merkatuari, errentari eta etxebizitzari lotutako zazpi adierazleren inguruan egituratuko dugu azterketa. Adierazle bakoitzaren 2024ko balioa jaso, eta hiriko auzo guztiak alderatzeko ranking batean jarri dugu auzo bakoitza.

**Adierazle-multzoa auzoka →**

1. Biztanleriaren zifra 2024 (kop)[82] eta urte arteko hazkundea 2023-2024
2. Biztanleria atzerritarraren zifra 2024 (kop.); biztanleria atzerritarraren pisua, auzoko biztanleriarekiko 2024 (%)[83], eta urte arteko hazkundea 2023-2024
3. Zahartze-tasa 2024 (65 urtetik gorakoen %)[84]
4. Unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren proportzioa 2024[85]
5. Biztanleria langabearen pisua, biztanleria osoarekiko 2024[86]
6. Etxebizitzen salerosketaren batez besteko prezioa m$^2$ bakoitzeko 2024ko IV. hiruhilekoa[87], eta urte arteko hazkundea 2023-2024
7. 2022ko errenta pertsonalaren maila[88]

### Erdialdea-Alde Zaharra eta Gros

### 4.1.1

**Donostiako biztanleriaren laurdena biltzen du, zahartze-joera argia du, eta prestakuntza- eta errenta-maila altuak ditu.**

Donostiako biztanleria osoaren % 21 baino zertxobait gehiago Erdialdea-Alde Zaharrean eta Gros auzoan bizi da; hala bada, biztanleria-bolumenean bigarren eta laugarren postuan daude.

Biztanleria-dinamikari dagokionez, Erdialdea-Alde Zaharrak hazkunde txikia izan du, biztanleria atzerritarraren urte arteko hazkundeak bultzatua (+% 4,5). Bestalde, Grosek biztanleria-galera izaten jarraitzen du; joera hori kolektibo atzerritarrean ere islatzen da.

Dinamika hori, Grosen kasuan, etxebizitzaren prezio altuari lotuta egon liteke neurri batean, urte batetik bestera % 4 inguruko igoera izan baitu; Erdialdea-Alde Zaharrean ere antzeko igoera izan da. Hala, etxebizitzaren haritik, Erdialdea-Alde Zaharra eta Gros lehen eta hirugarren postuetan daude hurrenez hurren, 5.600

[82]Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.
[83]Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.
[84]Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.
[85]Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. 2024ko abenduaren 31.
[86]*Iturria: Lanbide. 2024ko abendua.*
[87]*Iturria: Higiezinen salerosketaren estatistika. 2024. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.*
[88]*Iturria: Pertsonen eta familien errentaren estatistika 2022. Eustat.*

€/m²-tik gorako balioekin; ia 6.400 €/m²-ra iristen da Erdialdea-Alde Zaharrean.

Orobat, *silver* belaunaldiaren (65 urtetik gorakoak) presentzia agerikoa da bi auzoetan. Biztanleriaren % 30 baino gehiago da belaunaldi horretakoa, eta herena Erdigunearen kasuan. Horrez gain, auzook Donostiako batezbestekoa baino hezkuntza-maila handiagoa dute, eta errenta pertsonalaren mailari erreparatuz gero, lehen seien artean daude.

Erdialdea-Alde Zaharra
Gros



**Erdialdea-Alde Zaharra**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 22.515 bizt. | +% 1,1 | 2. |
| 2 | 2.943 bizt.<br>% 13,1/guztizkoa | +% 4,5 | 1. |
| 3 | % 31,1 > 65 urte | | 2. |
| 4 | % 36,3 unib. ikas. | | 1. |
| 5 | % 3,1 | | 10. |
| 6 | 6.392,3€/m² | +% 4,3 | 1. |
| 7 | 35.739€ | | 4. |

**Gros**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 17.831 bizt. | -% 0,6 | 4. |
| 2 | 2.040 bizt.<br>% 11,4/guztizkoa | -% 0,5 | 7. |
| 3 | % 32,9 > 65 urte | | 1. |
| 4 | % 32,2 unib. ikas. | | 5. |
| 5 | % 3,3 | | 9. |
| 6 | 5.594,5€/m² | +% 3,6 | 3. |
| 7 | 33.621€ | | 6. |



Argazkia: © Donostia San Sebastián Turismoa / SnapSea

# 04

## Amara Berri

### 4.1.2

**Biztanleria-bolumen eta biztanleria atzerritar handieneko auzoa.**

Auzoa, zeina Erdigunearekin funtzionalki lotuta baitago, hiriko gunerik populatuena da. 30.200 biztanle baino gehiago ditu 2024an, biztanleria atzerritarraren hazkundeari esker (+% 4,5). Izan ere, Amara Berrik du atzerritar bolumen handiena, 3.250 biztanle guztira 2024an. Horregatik, biztanleriaren batez besteko adina txikiagoa da.

Hezkuntza-mailari dagokionez, Groseko eta Ibaetako mailekin aldera daiteke, baina errentari helduz gero, Erdialdearen, Grosen eta Mendebaldearen azpitik dago.

Amara Berri



**Amara Berri**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 30.243 bizt. | +% 0,2 | 1. |
| 2 | 3.250 bizt.<br>% 10,7/guztizkoa | +% 4,5 | 9. |
| 3 | % 26,9 > 65 urte | | 4. |
| 4 | % 31,8 unib. ikas. | | 7. |
| 5 | % 3,3 | | 8. |
| 6 | 4.871,6€/$m^2$ | +% 3,8 | 7. |
| 7 | 29.235€ | | 10. |

## Mendebaldea

### 4.1.3

**Antiguo, Ibaeta, Igeldo, Aiete eta Miramon-Zorroaga: “Top 5” termino sozioekonomikoetan.**

Donostiako biztanleriaren % 23 inguru hiriaren mendebaldeko bost auzo horietakoa da; 2024an, 42.900 biztanle baino gehixeago dituzte. Izan ere, bost auzoetatik hiruk 10.000 biztanle baino gehiago dituzte, eta Aiete da egoiliarren kontzentrazio handiena duen bizitegi-eremua (14.865 biztanle eta goranzko dinamika azken urteotan).

Oro har, eremu horrek hezkuntza-maila handiak eta estandar sozioekonomiko altuak ditu. Batez besteko errenta pertsonala urtean 30.000 eta 79.000 euro bitartekoa da pertsonako, eta Aieteko eta Miramon-Zorroagako bizitegi-eremuetan daude balio altuenak.

Antiguo-Ondarretan izan ezik, Erdialdean eta Grosen baino zahartze-maila txikiagoak daude, *silver* biztanleriaren (65 urtetik gorakoak) proportzioa % 21-22 ingurukoa baita.

Mendebaldea



**Aiete**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 14.865 bizt. | +% 0,4 | 6. |
| 2 | 1.015 bizt.<br>% 6,7/guztizkoa | +% 3,0 | 15. |
| 3 | % 22,2 > 65 urte | | 9. |
| 4 | % 35,0 unib. ikas. | | 2. |
| 5 | % 2,6 | | 14. |
| 6 | 5.514,8€/$m^2$ | +% 3,8 | 4. |
| 7 | 41.818€ | | 2. |

Mendebaldea

**Antiguo-Ondarreta**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | 14.176 bizt. | -% 0,6 | 8. |
| **2** | 1.169 bizt.<br>% 8,3/guztizkoa | +% 5,0 | 12. |
| **3** | % 30,1> 65 urte | | 3. |
| **4** | % 34,9 unib. ikas. | | 3. |
| **5** | % 2,7 | | 13. |
| **6** | 5.706,2€/m2 | +% 5,6 | 2. |
| **7** | 38.630€ | | 3. |

**Ibaeta**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | 10.010 bizt. | -% 0,5 | 9. |
| **2** | 796 bizt.<br>% 8,0/guztizkoa | +% 4,7 | 13. |
| **3** | % 21,3 > 65 urte | | 13. |
| **4** | % 31,9 unib. ikas. | | 6. |
| **5** | % 3,1 | | 11. |
| **6** | 5.077,9€/m² | +% 7,5 | 5. |
| **7** | 34.981€ | | 5. |

**Igeldo**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | 1.124 bizt. | +% 1,4 | 16. |
| **2** | 122 bizt.<br>% 10,9/guztizkoa | +% 20,8 | 8. |
| **3** | % 21,2> 65 urte | | 14. |
| **4** | % 24,1 unib. ikas. | | 11. |
| **5** | % 3,4 | | 7. |
| **6** | z.g. | | z.g. |
| **7** | 29.951€ | | 9. |

**Miramon-Zorroaga**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | 2.475 bizt. | +% 1,8 | 15. |
| **2** | 174 bizt.<br>% 7,0/guztizkoa | +% 3,6 | 14. |
| **3** | % 21,9 > 65 urte | | 11. |
| **4** | % 32,6 unib. ikas. | | 4. |
| **5** | % 1,0 | | 16. |
| **6** | z.g. | | z.g. |
| **7** | 78.996€ | | 1. |

## Ekialdea

### 4.1.4

**IIntxaurrondo, Altza, Martutene, Mirakruz-Bidebieta, Egia eta Loiola-Txomin: biztanleriaren kontzentrazioa, langabezia handiagoa eta etxebizitzen prezio neurritsuagoak.**

Ekialdeko auzoetan, donostiarren % 36 baino zertxobait gehiago bizi dira. Langabeziak eragin handia du haiengan, eta 25.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute urtean, baita hezkuntza-maila txikiagoa ere. Izan ere, sei auzo horiek dira nagusi langabetuen artean. Langabe gehien Intxaurrondon eta Loiola-Txominen (% 5) daude, eta Egian, aldiz, % 3,7ra iristen da haien ehunekoa.

Ekialdeko barrutian (Altza, Intxaurrondo eta Mirakruz-Bidebieta), berriz, etxebizitzen prezioak zertxobait apalagoak dira, 2.600 €/m² eta 3.500 €/m² bitartekoak. Altza eta Intxaurrondo auzoetan, esaterako, prezioak % 3 inguru jaitsi dira[89].

Azken bi auzo horiek biztanleria esanguratsua dute (16.124 eta 20.611 biztanle, hurrenez hurren) eta biztanleria atzerritarraren hazkunde handia izan dute, bereziki Intxaurrondon, non biztanleria atzerritarra % 17raino hazi baita urte bakar batean.

Azkenik, azpimarratu behar da Loiola-Txomin hiriko auzo demografikoki gazteena dela.

[89]Saldutako etxebizitzen tipologia desberdinengatik izan daiteke desberdina batez besteko prezioa (adibidez, etxebizitza erabilien proportzio handiagoa etxebizitza berrien aldean).

# 04

## Ekialdea



### Egia

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 14.644 bizt. | -% 0,0 | 7. |
| 2 | 1.483 bizt.<br>% 10,3/guztizkoa | +% 1,7 | 10. |
| 3 | % 25,9 > 65 urte | | 6. |
| 4 | % 25,3 unib. ikas. | | 9. |
| 5 | % 3,7 | | 6. |
| 6 | 4.109,8€/m$^2$ | +% 0,2 | 8. |
| 7 | 25.271€ | | 12. |

### Loiola-Txomin

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 6.580 biz. | +% 4,7 | 11. |
| 2 | 755 bizt.<br>% 11,5/guztizkoa | +% 9,6 | 6. |
| 3 | % 18,1 > 65 urte | | 17. |
| 4 | % 20,9 unib. ikas. | | 12. |
| 5 | % 5,0 | | 2. |
| 6 | 3.927,7€/m$^2$ | +% 1,1 | 9. |
| 7 | 23.299€ | | 14. |

### Martutene

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 2.723 bizt. | -% 0,1 | 14. |
| 2 | 315 bizt.<br>% 11,6/guztizkoa | +% 4,3 | 5. |
| 3 | 20,9 > 65 urte | | 15. |
| 4 | % 14,2 unib. ikas. | | 16. |
| 5 | % 4,9 | | 3. |
| 6 | z.g. | | z.g. |
| 7 | 21.744€ | | 16. |

## Ekialdea

### Intxaurrondo

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 16.124 bizt. | +% 1,6 | 5. |
| 2 | 2.096 bizt.<br>% 13,0/guztizkoa | +% 16,8 | 2. |
| 3 | % 22,0 > 65 urte | | 10. |
| 4 | % 18,6 unib. ikas. | | 13. |
| 5 | % 5,2 | | 1. |
| 6 | 3.497,8€/m$^2$ | -% 3,1 | 10. |
| 7 | 23.088€ | | 15. |

### Altza

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 20.611 bizt. | +% 0,6 | 3. |
| 2 | 2.424 bizt.<br>% 11,8/guztizkoa | +% 1,8 | 3. |
| 3 | % 24,7 > 65 urte | | 8. |
| 4 | % 10,6 unib. ikas. | | 17. |
| 5 | % 4,7 | | 4. |
| 6 | 2.653,4€/m$^2$ | -% 3,3 | 13. |
| 7 | 20.044€ | | 17. |

### Mirakruz-Bidebieta

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 8.839 bizt. | -% 0,2 | 10. |
| 2 | 1.027 bizt.<br>% 11,6/guztizkoa | +% 2,6 | 4. |
| 3 | % 25,4 > 65 urte | | 7. |
| 4 | % 17,4 unib. ikas. | | 15. |
| 5 | % 4,4 | | 5. |
| 6 | 2.951,4€/m$^2$ | +% 5,6 | 12. |
| 7 | 24.350€ | | 13. |

## Hiriko gainerako auzoak

4.1.5

